


Euskadiren ingurumen profila



2009

Herri-baltzua
Sociedad Pública del




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

 **ihobe**



© Ihobe S.A., 2010eko uztaila

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila
Eusko Jaurlaritza
Alda. Urquijo, 36 6º
48011 Bilbao
Tel: 900 15 08 64

Aurkibidea

Orria

AURKEZPENA	1
1. SARRERA	2
1.1 Ingurumenaren bilakaera krisialdian	2
1.2 Euskadiko 2009ko Ingurumen Profil berria	3
2. 2009KO EBALUAZIO INTEGRATUA: AURRERAKUNTZA ETA JOERA NAGUSIAK	5
2.1 Airearen Kalitatea	6
2.2 Uraren kalitate ona	8
2.3 Lurzoruaren poluzioa prebenitzea eta zuzentzea	9
2.4 Natura-baliabideak arduraz kontsumitzea	11
• URAREN KONTSUMOAREN MURRIZPENA 85 MILIOI LITROKOA IZAN DA.....	13
• 400 TONA HONDAKIN GUTXIAGO SORTU DIRA.	13
• GAIKAKO BILKETAKO EDUKIONTZIEN ERABILERA % 10 HANDITU DA.....	13
• IBILGAILU PRIBATUAREN ERABILERA % 11 MURRIZTU DA, ETA GARRAIOBIDE PUBLIKOENA % 3,5 IGO DA.....	13
• KONTSUMO BAXUKO 20.449 BONBILLA INSTALATU DIRA.	13
2.5 Energia-kontsumo eta -ekoizpen jasangarria sustatzea	14
2.6 Hondakinak murriztea eta tratamendurik gabeko isurketak zero izatea	16
2.7 Gure biodibertsitateari eustea	18
2.8 Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz	20
2.9 Lurraldearen erabilera orekatua lortzea	22
2.10 Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murriztea	23
2.11 Klima-aldaketara egokitzea	24
3. JASANGARRITASUNERAKO BEHARREZKO BALDINTZAK GARATZEKO BIDEAN AURRERA	25
3.1 Ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan kontuan hartzea	25
3.2 Indarrean dagoen legeria eta haren ezarpena hobetzea	27
3.3 Merkatua ingurumenaren alde erabiltze	28
3.4 Herritarrak gaitu eta erantzukidetzea	29
3.5 Ingurumen-ikerketak, -garapena eta -berrikuntza	31
3.6 Nazioarteko ingurumen-lankidetzea	32
ERANSKINA II. IEP-AREN 44 KONPROMISOAK, 2009. URTEA.....	33

AURKEZPENA

Eusko Legebiltzarrak EAEko 2007-2010eko II. Ingurumen Esparru Programaren segimendua eta ebaluazio egiteko emandako aginduari jarraiki aurkeztu da Euskadiko 2009ko Ingurumen Profila. Bi helburu ditu: hartutako 44 konpromisoen betetze-maila ebaluatzea, eta 2008ko Ingurumen Urtekaria argitaratu zenetik ingurumenak izan duen bilakaeraren berri ematea.



Aurretiko esperientzietatik, lortutako heldutasun-mailatik eta beste arlo batzuetan antzeko ekimenetan martxan jarritako jardunbide egokien behaketatik eratorritako berritasunak jasotzen dira urteko txosten honetan. Berritasun aipagarriena izena aldatzea izan da; identifikatze komunikatibo argiagoa lortzeko egin da aldaketa.

Baina, batik bat, edukien arloan saiatu gara txostenari balio erantsi handiagoa ematen. Horretarako, II. Ingurumen Esparru Programan ezarritako Beharrezko Baldintzen ebaluaziori buruzko informazioa sartu dugu, Eusko Legebiltzarrak harekin lotuta eman dituen ebazpenak erantsi ditugu, eta gure ingurumen-adierazleak beste erkidegoetako eta Europako adierazleekin alderatu ditugu. Hori guztia gure politikak berrikusteko eta eguneratzeko tresna baliagarri eta zehatz bat lortzeko asmoarekin egin dugu.

Ingurumen-adierazleen azterketa eguneratuak (krisialdiak baldintzatutakoa, zalantzarik gabe) airearen, uraren eta lurzorua kalitatearen hoberako joera orokorra berresten du. Bestalde, azterketak egiaztatzen du produkzio-sistemaren ekoeraginkortasunean aurrera egin dela eta gobernantzaren bikaintasunerako bidean zeharkako askotariko tresnak hedatu direla.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritza berriak Eko-Euskadi 2020 jasangarritasunerako itun sozial berri gisara planteatzen du, ikuspegi ekonomiko eta sozialak eta ingurumen-ikuspegiak barne hartuz Euskadi hazkunde-eredu berde berri baterantz bideratuko duen tresna gisara.

Eta orain, nik ordeztan dudan Sailari dagokio Eko-Euskadi 2020ren erronka III. Ingurumen Esparru Programan txertatzea, herrialdearen gaineko gure ingurumen-ikuspegia lortzeko helburuen planifikazioan eta identifikazioan jauzi kualitatibo bat emateko.

Pilar Unzué Pérez de Eulate
Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza sailburua

1. SARRERA

1.1 Ingurumenaren bilakaera krisialdian

“Euskadiko 2009ko Ingurumen Profila”-ren poltsiko-argitalpena aurkezten dugu jarraian, 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programaren helburuen eta konpromisoen betetze-mailan egin diren aurrerapenak ebaluatzen dituen laburpena.

Jada zazpi urte igaro dira Eusko Jaurlaritza EAEko ingurumen-adierazleei buruzko urteko informazioa aurkezten hasi zenetik, eta, orduz gerotik, emandako informazioaren kalitatea eta aurkezpena hobetzen joan gara urtez urte. 2008an, lehenbiziko aldiz, dokumentu bakarrean txertatu ziren ingurumen-egoerari buruzko informazioa eta euskal ingurumen-politikaren aurrerapenei buruzkoa.

2009an, Euskadiko Ingurumen Profilaren lehen edizio honekin, balio erantsi handiagoa eman zaio dokumentuari, ikuspegi osoagoa emanez eta estatuko edo Europako txostenekin bat etorritz.

EAEko ingurumen-egoera adierazten duten ingurumen-parametro nagusien eboluzioa, eta azken urtean helburuak lortzeko egin diren aurrerakuntzak oso baldintzatuta daude, eta ez soilik gure inguruko politiken garapen eta ezarpenagatik. Krisialdiak baldintzatutako munduko testuinguruan, atzeraldi produktiboak eta kontsumoaren geldialdiak zuzenean eragiten dute azterketaren helburu izan diren zenbait aldagairen inguruan bildutako datuetan.

Atzeraldi ekonomikoaren eta ingurumen-adierazleen arteko harreman hori nabarmenagoa da zenbait adierazletan, hala nola baliabideen kontsumoarekin eta berotegi-efektuko gasen emisioen beherakadarekin zerikusia dutenetan. Beste kasu batzuetan, adierazlearen eboluzioari ez diote hainbeste eragiten egoeraren araberako aldaketa horiek (adibidez, biodibertsitatearen bilakaerari buruzko adierazleen kasuan).

Eguneratutako datuen erabilgarritasunak ere baldintzatzen du bistaratze hori. 2008ko informazioa ere baduten adierazleetan, hiri-hondakinen sorrerari dagozkionetan adibidez, argi eta garbi nabarmentzen da testuinguru ekonomikoaren eragina. Baina, eragin horrek nabarmena izan behar zuen beste adierazle batzuen kasuan, desfasea dago egungo egoeraren eta informazioa dugun azken aldiaren artean, eta, hori dela eta, ezin dugu korrelazio hori egiaztatu oraindik. Hori geratzen da, adibidez, materialen kontsumoaren kasuan, eta, kasu horretan, azken datuak 2006koak dira.

Nolanahi ere, kontuan izan behar dugu egungo egoerak azken analisiko hobekuntza edo okerragotze asko areagotzen dituela. Beraz, ezin dugu galdu egindako ibilbidearen epe luzeko ikuspegia, eta kontuan izan behar dugu hobekuntza iraunkor eta finkoa (eta ez soilik egoeraren araberako hobekuntza) lortzeko egiteke dagoen lana.

1.2 Euskadiko 2009ko Ingurumen Profil berria

2009ko ekitaldiko ingurumen-bilakaeraren txostenak hainbat nobedade dakartza 2008ko ingurumen-urtekariarekin alderatuta.

Alde batetik, txostenari izena aldatu zaio, eta orain “Euskadiko Ingurumen Profila” deitzen da. Horrela, identifikazio komunikatibo argiagoa eta estatuan edo Europan aldiro aurkezten diren antzeko txostenen ildo berekoa lortu nahi da.

Edukiei dagokienez, txosten honi balioa eransteko, berritasun hauek sartu dira:

- Ingurumen-adierazle bakoitzari buruzko informazioa beste lurralde batzuetako informazioarekin (beste autonomia-erkidego batzuetakoarekin, Espainiakoarekin eta/edo Europakoarekin) alderatu da ahal den guztietan.
- 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programan ezarritako Beharrezko Baldintzen¹ garapenean azken urtean egin diren aurrerakuntzei buruzko analisi berritzaile bat egin da.
- 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programari buruz Eusko Legebiltzarrak hartutako erabakien² inguruan egindako aurrerakuntzak zerrendatu dira.

Gainerakoan, emaitzen aurkezpen grafiko eta intuitiboari eutsi zaio, adierazle bakoitzaren joera gezien bidez irudikatuz:



Joera positiboa.



Joera ez da argia (aurrerapen positibo batzuk egin dira, baina ez nahikoak, edo joerak gurutzatuak dira).



Joera negatiboa.



Ez dago konpromisoari dagozkion nahikoa datu/datu garrantzitsurik

Beste ekitaldi batzuetan egindako txostenetan bezala, dokumentuaren oinarritzko egitura mantendu egin da. Hala, Ingurumen Esparru Programaren hamaika helburuetarako politikan eta instrumentuetan egindako aurrerakuntzak deskribatzen

¹2007-2010eko Ingurumen Esparru Programak zeharkako bitartekoak eskaintzen ditu, hartutako konpromisoak betetzeko garatu beharreko jarduera-ildoak osatzen eta oinarria jartzen dutenak. Beharrezko Baldintzak dira, eta, IEPren aginte-koadroan lotutako adierazlerik ez badute ere, egokitzen jotzen da baldintza horiek segimenduaren urteko zikloan sartzea, eta dagozkien arloan lortutako aurrerapenak adieraztea.

² Eusko Legebiltzarreko Lurralde Antolamendu, Garraio eta Ingurumen Batzordeak Ingurumen Esparru Programarekin lotutako ebazpen batzuk onartu zituen 2007ko urrian. Ebazpen horietatik, II. IEPan jada onartutako edukietatik haratago doazenak eta hura osatu eta garatzen dutenak nabarmendu ditugu.

dituen banan banako ibilbide baten inguruan antolatuta dago dokumentua. Konpromiso bakoitzarekin eta erlazionatutako datu konparatiboekin lotutako baliorik eguneratuenak jasotzen dituen eranskin batekin osatzen da ibilbide hori.

- ✓ Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza www.euskadi.net
- ✓ Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. www.ingurumena.ejgv.euskadi.net
- ✓ Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila: www.garraioak.ejgv.euskadi.net/
- ✓ Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa www.ihobe.net
- ✓ Energiaren Euskal Erakundea: www.eve.es
- ✓ Uraren Euskal Agentzia: www.uragentzia.net
- ✓ Euskadiko Biodibertsitate Zentroa, Madariaga Dorretxea: www.torremadariaga.org
- ✓ Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Udalsarea 21: www.Udalsarea21.net
- ✓ Eustat, Euskal Estatistika Erakundea: www.eustat.es
- ✓ Espainiako Gobernuaren Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakoko Ministerioa www.marm.es
- ✓ Espainiako Jasangarritasunaren Behatokia: www.sostenibilidad-es.org
- ✓ INE, Estatistika Institutu Nazionala: www.ine.es
- ✓ Europako Ingurumen Agentzia: www.eea.europa.eu
- ✓ Eurostat, Europako Estatistika Agentzia: epp.eurostat.ec.europa.eu

2. 2009KO EBALUAZIO INTEGRATUA: AURRERAKUNTZA ETA JOERA NAGUSIAK


II. Ingurumen Esparru Programaren 11 helburu eta 44 konpromisoari dagozkien balorazioen laburpena eskaintzen du grafiko honek, izandako joeren ikuspegitik.

Helburu estrategikoak	Joera	2010eko IEPren Konpromisoak
1. Aire garbia		
2. Uraren kalitate ona		
3. Lurzoruaren poluzioa prebenitzea eta zuzentzea		
4. Natura-baliabideak arduraz kontsumitzea		
5. Energia-kontsumo eta -ekoizpen jasangarria sustatzea		
6. Hondakinak murriztea eta tratamendurik gabeko hondakinen isurpena zero izatea		
7. Gure biodibertsitate biologikoari eustea		
8. Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz		
9. Lurraldearen erabilera orekatua lortzea		
10. Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murriztea		
11. Klima-aldaketara egokitzea		

Ikus daitekeenez, zortzi helburutan (airea, ura, lurzoria, energia, hondakinak, lurraldea, BEGen emisioak eta klima-aldaketarekiko egokitzapena) joerak erabat positiboak dira. Salbuespenak dira natura-baliabideen kontsumoa eta mugikortasuna; helburu horien kasuan, joerak negatiboak dira oraindik. Biodibertsitatearen helburuarekin lotutako konpromisoen kasuan, ezin da zehaztu bilakaeraren joera garbi bat. Konpromisoari dagokienez, joeren laburpen orokorraren arabera, Ingurumen Esparru Programan aurreikusitako konpromisoen % 57k bilakaera positiboa du denboran, % 14k joera gurutzatuak edo aski ez diren aurrerapenak erakusten ditu, eta % 11k bilakaera negatiboa du (eta, beraz, arreta berezia behar du).


Gainerako % 18a, konpromisoaren egoera diagnostikatzeko datu nahikorik edo fidagarririk ez duten helburuei dagokie; horrek konpromisoaren egokitasunari eta/edo informazio jakin bat lortzeko eta kudeatzeko dugun gaitasunari buruzko hausnarketa egitera eramaten gaitu. Nolanahi ere, gogoeta orokor hauek jardueraren bakoitzeko zehaztu behar dira; beraz, jarraian 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategiko bakoitzaren aurrerapenen xehetasunak emango ditugu.

2.1 Airearen Kalitatea








1. HELBURUA: AIRE GARBIA

JOERA




“Lurralde osoan airearen kalitatea hobetzea, pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean duen eragin bereziagatik, hiriguneetan arreta berezia jarritz”.

- | | |
|---|---|
| <p>1. konpromisoa: AIREAREN KALITATEA: Kalitatearen indizea on edo onargarri kategoriatakoa duten aireak % 95etik gora izatea; eta txar, oso txar edo arriskutsu kategoriatakoak, % 1etik behera. Txar, oso txar edo arriskutsu kategoriatako airea jasaten duen populazioa 2006koa baino % 20 txikiagoa izatea.</p> |  |
| <p>2. konpromisoa: PARTIKULAK (PM₁₀): Airearen kalitateari buruzko jardueraren planak egin behar diren eremuetan, partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa % 10 murriztea, gutxienez.</p> |  |
| <p>3. konpromisoa: PM_{2,5} Egungo PM_{2,5}-aren urteko muga-balioa (EBk adieraziko duena) ez gainditzea sareko estazioetan.</p> |  |
| <p>4. konpromisoa: POLUITZAILEEN EMISIOAK: NO_x, SO₂ eta KOLEn emisioak ehuneko hauetan murriztea, 1990ekoekin alderatuta: NO_x:-% 31, SO₂:-% 64, KOLEM:-% 58.</p> |  |
| <p>5. konpromisoa: ZARATA: MOEk aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata-mailak jasaten dituen populazioa % 10 murriztea, 2006ko datuekin alderatuta.</p> |  |

Aztertutako azken denboraldian, aurreko urteetako joera positiboari eutsi zaio, eta partikulen urteko batez besteko kontzentrazioaren murrizpena da hobekuntzarik garrantzitsuenetarikoa.

PM₁₀-aren urteko batezbestekoaren bilakaera EAEn



Fuente Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

NO_x eta KOLEMen emisioen bilakaera: hartutako konpromisoetatik urrun kokatzen gaituzte 2009ko zifrek.

2009an, airearen kalitatearen arloko jarduerak babesten jarraitu dugu udal eta eskualdeetan. Hala, denboraldi horretan, Udalsarea 21en barruan, lanean jarraitu dugu airearen kalitaterako “ekitalde” lantaldeen bidez, eta poluzio atmosferikoaren diagnostikoak berrikusi eta eguneratu dira lau eskualde hauetan: Ibaizabal Behealdea, Durangaldea, Deba Garaia eta Pasaialdea.

Udalsarea 21en barruan, halaber, proiektu berritzaileen sustapenerako programaren zati gisa, ekimen aipagarri batzuk gauzatu dira, hala nola Tolosako emisio urriko eremua eta Durangoko hiri-lanen ingurumen-hobekuntzarako udal-ordenantza.









Industriari dagokionez, emisio atmosferikoa kontrolatzen jarraitu da, Ingurumen Baimen Integratuaren³ pean dauden enpresei neurri zuzentzaile eta murriztaileak ezarriz.

Zarataren arloan, aipatzekoa da udalek gero eta protagonismo handiagoa hartu izana; izan ere, udal horiek, batez ere Tokiko Agenda 21 eta antzeko prozesuen testuinguruan, zarata-mapak egin dituzte edo egiten ari dira, eta horren aurreko ekintza-planak abiarazten ari dira.

Beste administrazio publiko batzuei legez eskatutako zarata-mapa estrategikoen gauzatzeak ere aurrera egin du azken hiru urteetan. Zarata-mapa estrategikoei eta indarrean dagoen legediaren barruko ekintza-planei buruzko informazioa Ingurumen, Landagune eta Itsas inguruetako Ministerioaren Poluzio Akustikoari buruzko Oinarrizko Informazio Sistemari (SICA) kontsultatu daiteke.

³ IIBaren egungo egoerari buruzko informazio gehiago, 3. kapituluan.

2.2 Uraren kalitate ona

	2. HELBURUA: URAREN KALITATE ONA	JOERA 
<i>EAEko Plangintza Hidrologikoan zehaztutako ur-masa guztiak egoera ekologiko onean egotea eta haiek narriatzen ez uztea, ekosistemen egoera onari eta pertsonen garapenari eta bizi-kalitateari laguntzeko.</i>		
6. konpromisoa, LURRAZALEKO URAK: Lurrazaleko ur-masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, haietako % 80 egoera ekologiko onean egotea lortzeko.		
7. konpromisoa, UR ARTIFIZIALAK: Ur-masa artifizialak eta oso eraldatuak babestea eta hobetzea, % 80 egoera kimiko onekoak eta indar ekologiko handikoak izatea lortu arte.		
8. konpromisoa, LURPEKO URAK: Lurpeko ur-masak babestu, hobetu eta leheneratzea. Ur horien erauztearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren % 80 egoera onean egoteko.		
9. konpromisoa, HONDAKIN-URAK: Saneamendu-azpiegitura publikoetara bideratu daitezkeen hiriko hondakin-urak (populazioaren % 97) HUA motako arazketa-sistemen bidez tratatzea dagokien isurketari eta ingurune hartzaileari egokituta.		
10. konpromisoa, BAINATZEKO URAK: Bainatzeko uren laginketa-puntuaren % 95k kalifikazio ona edo onargarria lortzea ³ .		
11. konpromisoa, EDATEKO URAK: Euskal herritarren % 95k kalifikazio egokiko edateko ura jasotzea lortzea.		







2008ko datuek, konpromisoari lotutako adierazleei dagokienez, garrantzi gutxiko aldaketak erakusten dituzte. Positiboki nabarmendu behar da itsasertzeko uren kalitatearen hobekuntza, 2007an izandako kalitate-jaitsieraren ondoren. Bestalde, ur artifizial edo oso aldatuen kalitatea baloratzeko indize fisiko, kimiko eta biologikoen balioak txartu egin dira⁴.

2008an, Uraren Euskal Agentziak uren kudeaketaren arloko gai garrantzitsuen eskema egin zuen. Gaur egun, Barneko Arroen Plan Hidrologikoa egiten eta Kantauriko eta Ebroko Plan Hidrologikoen garapenean parte hartzen ari da.

Saneamendu- eta arazketa-plan berri baten definizioa ere hasi da; 91/271/EEE Direktibak eskatu eta oraindik egiteke zeuden jarduerak eta Uraren Esparru Direktibaren ingurumen-helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen direnak integratu dira plan horretan.

⁴ Nolanahi ere, oso eraldatutako uren datuak erlatibizatu egin behar dira, gaur egun ez baitago berariazko metodologiarik, eta ur-masa naturaletarako orokorra ezarri baitzaie. Bestalde, ur-masa oso gutxi dira, eta aldaketa txikiak serie oso irregularrak eragiten dituzte.

2.3 Lurzoruaren poluzioa prebenitzea eta zuzentzea

	3. HELBURUA. LURZORUAREN POLUZIOA PREBENITZEA ETA ZUZENTZEA	JOERA 
<i>Lurzoruaren kudeaketa ahalik eta hobereana lortzea, poluzio historikoa kentzea lehenetsiz eta poluzio-mota berriei aurrea hartuz.</i>		
12. konpromisoa, LURZORUAREN POLUZIOA PREBENITZEA: Lurzoruaren poluzioa prebenitzea, horretarako dauden tresnak erabilita (egoeraren atariko txostenak).		
13. konpromisoa, LURZORUAK ERABILERA BERRIETARAKO LEHENERATZEA: Poluituta egon daitezkeen 407 hektarea lur leheneratzea, hirigintza-plangintzak erabilera edo jarduera berri bat aurreikusten badu.		
14. konpromisoa, ERABILERA BERRIRIK GABEKO LURZORUAK LEHENERATZEA: Poluituta egon daitezkeen eta hirigintza-plangintzak erabilera edo jarduera berririk aurreikusten ez duen 35 hektarea lurzoru leheneratzea		
15. konpromisoa, HONDAKINDEGI EZ-AKTIBOAK: Jabetza publikoko hondakindegia ez-aktiboen etengabeko ingurumen-kontrol eta -segimendua egitea.		

2009an aurrerapen handiak egin dira lurzoru poluituen diagnostikatzeko eta berreskuratze-lanetan, duela urte batzuk hasitako ildoari jarraiki, 2007-2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Planaren ezarpenaren bidez bultzatuta.

Hala, Egoeraren Atariko Txosten⁵ ia guztien balorazio-lanak burutu dira, eta haien egiaztapenari ekin zaio Ingurumeneko Eraginaren Ebaluazioaren prozedurapean dauden enpresen egoeraren atariko txostenen edukiak ikuskatuz.

Informazio hori erkatu ondoren, txosten horiek nahitaez aurkeztu behar dituzten enpresei buruzko jarduera-proposamen bat gauzatzeko fasean dago, euskal administrazioaren balorazioak ekitea gomendatzen duen arloetan.


Poluitutako lurzoruen berrekurapenarekin lotuta, ezarpen-fasean dago 1/2005 Legeak aurreikusitako lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura. Horrez gain, poluituta egon daitezkeen kokapenetan eraikitako hamabost poligonoren ikerketa- eta jarduera-proposamenak kudeatu dira. Bestalde, izapideak azkartzeko lanak egin dira.

Nabarmentzekoak dira hainbat arlotan ezarritako lankidetzako ildoak:

- ✓ Askotariko erabileretarako lurzoruak sustatzen duten erakundeekin: Sprilur, Etorlur, Jaizkibia eta Pasaiko Portu Agintaritza.
- ✓ Uraren Euskal Agentziarekin, lurzoruak poluituta eta urak kaltetuta egon daitezkeen kokaguneetan.
- ✓ Elikadura-segurtasunerako ELIKA Fundazioarekin.

Era berean, udal jabetzako lurzoru poluituen ikerketa- eta berreskuratze-ekintzak babesten jarraitzen da 2009ko ekainaren 16ko Aginduari jarraiki. Agindu horrek garapen jasagarria sustatzen duten udalen, mankomunitateen, beste tokiko erakunde batzuen, tokiko erakunde autonomoen eta tokiko merkataritza-sozietateen diru-laguntzak arautzen ditu.

⁵ Autonomia-erkidegoko erakunde eskudunari Egoeraren Atariko Txostena igortzera behartzen ditu 2005eko 9/2005 Errege Dekretuak titular guztiak. Helburua da lege-testuak eragiten dien jarduera edo egoeraren bat kokatzen den edo kokatu izan den lurzoruan poluziorik sortu den edo sortuko den baloratzea.




Azkenik, 2009an, aktibo ez dauden hondakindegia publikoen ingurumen-kontrol eta -segimenduari ekin zaio, arlo horretako ekintzen lehentasuna ezarri ondoren.

2.4 Natura-baliabideak arduraz kontsumitzea

	4. HELBURUA. NATURA-BALIABIDEAK ARDURAZ KONTSUMITZEA	JOERA 
<i>“Natura-baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea (ura, energia, materialak eta lurzorua), ikerketaren eta berrikuntzaren bidez eraginkortasuna optimizatuz eta, horren bidez, lehiakortasuna hobetuz.</i>		
16. helburua, KONTABILIZATU GABEKO URA : Kontabilizatu gabeko uraren hiri-eskaria murriztea, hornitutako populazioaren % 80an % 25era iritsi arte.		
17. konpromisoa, URAREN PRESIO HANDIKO ESKAERA : Uraren hornidura publikoaren eta industria- eta nekazaritza-jardueraren presio handiko eskaria % 20 murriztea 2001eko datuen aldean.		
18. konpromisoa, MATERIALEN KONTSUMOA : Baliabideen kontsumo-eraginkortasuna (eraginkortasun materiala) 2001eko mailan mantentzea.		
NATURA-BALIABIDEAK ARDURAZ KONTSUMITZEKO helburu estrategikoarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak		
<i>“Natura-baliabideen kontsumo arduratsuari buruzko 2. helmuga lortzeko, Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du jarduera-ildo hauek helburu estrategikotzat hartzea, eta hala eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:</i>		
1. <i>Azpiegituren eraikuntzan materialen berrerabilpena sustatzeko neurri fiskalak ezartzeko proposatzea erakunde eskudunei.</i>		
2. <i>Jarduera egokien eta heziketaren gidaliburu bat idaztea eta argitaratzea, etxeko energia-kontsumoa arrazionalizatzea bideratua, energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko”.</i>		

Gure ingurumen-jokaeraren ebaluazioan, natura-baliabideen kontsumoak elementu negatiboetako bat izaten jarraitzen du. Termino absolutuetan, gorako joerari eutsi zaio denboran zehar. Hazkundearen moteltzeak ere izan dira, baina, azkeneko datuen eta epe motzera aurreikusten diren datuen kasuan, egungo krisialdiaren testuinguruan kokatu behar dira horiek.

Natura-baliabideen kontsumoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eustat eta Energiaren Euskal Erakundea.

Uraren kontsumoari dagokionez, lehen urtean zailtasunak izan ziren 2008ko Dekretuaren bidez onartu eta 2009ko urtarrilean indarrean jarri zen Uraren Euskal Legeak aurreikusitako kanona ezartzeko; hori dela eta, eskatutako hasierako deklarazioak egiteko epea luzatu egin da. Bestalde, Dekretuaren aplikazioaren lehen urtean ez zaio uraren kanonik ezarriko etxeko erabilera duen uraren kontsumoari.

Bestalde, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) "Energia etxean - Energía en el hogar" gidaliburua egin eta argitaratu du, herritarrok energiaren balioaren kontzientzia har dezagun etxebizitzaren erosketara eta ekipamenduaren, etxeko hondakinen eta autoaren erabileraren arloan. Gidaliburu horren 50.000 kopia inprimatu banatu dira. Gidaliburu hori Energiaren Euskal Erakundearen web-orriko "Ikasgela"-rekin osatzen da. Hala, gure etxetara iristen den energia sortzen eta eraldatzen duten mekanismoak zein diren eta energia-iturri guztiak arduraz erabiltzea zein garrantzitsua den erakusten digute.






Halaber, Eusko Jaurlaritzak proiektu pilotu bat sustatu du jardueraren industrialetan karbono-aztarna kalkulatzeko tresna berri bat aplikatzeko. 2009an, tresna hori hainbat sektoretako instalazioetan aplikatu da, industriarako zerbitzu gisara finkatu aurretik haren ahalmena optimizatzen.

Azkenik, 2009an GAP-Global Action Plan⁶ Ingurumen Programa egin da laugarren aldiz. Euskal Autonomia Erkidego 82 herritako 3.686 lagunek hartu dute parte. Funtzionamenduan egon den lau urte hauetan, 24.571 etxek hartu dute parte ekimen horretan, eta horrek ingurumen-inpaktu hauek murriztea ekarri du:

⁶ Nazio Batuen Ingurumen Programak babestutako nazioarteko programa bat da GAP. Haren helburua da pertsonen ohiturak aldatzea, baliabideen erabileraren eraginkortasuna handitzeko eta planetan duten inpaktua murrizteko. Uraren, energiaren eta erregai fosilen kontsumoa murrizten lagunduta, CO₂-aren emisioak gutxituta eta jokaera osasungarriagoak hartuta, parte hartzen duten etxeek klima-aldaketa geldiarazten eta planeta toki jasangarria bihurtzen laguntzen dute. 17 herrialdetan ezarrita dago, eta 200.000 etxebizitza baino gehiago ari dira parte hartzen.


-
- URAREN KONTSUMOAREN MURRIZPENA 85 MILIOI LITROKOA IZAN DA.
 - 400 TONA HONDAKIN GUTXIAGO SORTU DIRA.
 - GAIKAKO BILKETAKO EDUKIONTZIEN ERABILERA % 10 HANDITU DA.
 - IBILGAILU PRIBATUAREN ERABILERA % 11 MURRIZTU DA, ETA GARRAIOBIDE PUBLIKOENA % 3,5 IGO DA.
 - KONTSUMO BAXUKO 20.449 BONBILLA INSTALATU DIRA.

2.5 Energia-kontsumo eta -ekoizpen jasangarria sustatzea

	5. HELBURUA. ENERGIA-KONTSUMO ETA -EKOIZPEN JASANGARRIA SUSTATZEA	JOERA
<i>Energia-aurrezkia, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzea, kontsumo-sektore guztietan.</i>		
19. konpromisoa, ENERGIA AURREZTEA:	2010erako 975.000 ptb-ko energia-aurrezkia lortzea.	
20. konpromisoa, ENERGIA-ERAGINKORTASUNA:	Energia-eraginkortasunaren intentsitatea 2000n baino % 16 handiagoa izatea.	
21. konpromisoa, JATORRI BERRIZTAGARRIKO ETA KOGENERAZIOKO ELEKTRIZITATEA:	Kontsumoaren %29 energia berriztagarrien eta kogenerazioaren bidez lortzea.	
22. konpromisoa, BIOERREGAIK:	Garraioko bioerregaien urteko kontsumoa 177.000 ptb-koa izatea lortzea.	
ENERGIA-KONTSUMO ETA -EKOIZPEN JASANGARRIA SUSTATZEKO helburu estrategikoarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak		
<i>"Eusko Jaurlaritzaren ustez, energia-kontsumo eta -ekoizpen jasangarria sustatzeko, beharrezkoa da jarduera-ildo hauek ezartzea:</i>		
1. Eusko jaurlaritzak, eta Eusko Legebiltzarrak, bere titularitateko eraikin guztietan eguzki-panelak instalatzea, ahal den neurrian argiztapen, ur bero eta berokuntzaren beharrak asetzen laguntzeko eta instalazioaren bideragarritasuna zehazteko.		
2. Foru-aldundiek eta udalek helburu bereko programak garatzea.		
3. Eskumena duten erakundeek diru-laguntzak eta pizgarriak ematea eraikin eta etxebizitzetan eguzki-panelak instalatzeko.		

Zifra absolutuetan, 2008ko energia-kontsumoa 2.757 petrolio-kilotona baliokide izan da; beraz, 2007ko mailari (% 0,18ko hazkundera) eutsi zaio ia. Sektoreka, etxeko sektoreak izan du hazkunderik handiena azken urtean (+% 47,64), eta zerbitzuen sektoreak izan du murrizketarik handiena (-% 21,47). Azken kontsumo totalan duen garrantzia dela eta, aipagarria da garraioaren sektoreak 2008an % 5,08 murriztu duela energiaren azken kontsumoa, 2007ko datuekin alderatuta. Energiaren azken kontsumoaren sektorekako bilakaera

Energiaren azken kontsumoaren sektorekako bilakaera



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Aztertutako azken denboraldian, hartutako konpromisoekin lotutako adierazle guztien joera positiboari eutsi zaio. Hala, euskal ekonomiaren eraginkortasun energetikoa hobetuz doa, eta energiaren kontsumo totalen handiagoa da energia berriztagarrien eta kogenerazioaren parte-hartzea; handiagoa da, halaber, bioerregaien parte-hartzea garraio-sektoreko energiaren kontsumoan.

Energia berriztagarrien kontsumoari dagokionez, ordea, 2008an energiaren % 3,9 soilik zetorren iturri berriztagarrietatik, Espainiako batezbestekoaren (2007an, % 20) eta Europakoaren (2007an, % 15,6) oso azpitik.

Beharrezkoa da, era berean, bioerregaien kontsumoaren joera positiboa erlatibizatzea; azken bi urteetan asko hazi bada ere, egungo zifrak oso urrun daude 2010erako ezarritako helburutik (43.740 ptb kontsumitu ziren 2008an, eta 2010ea 177.000 ptb kontsumitzea aurreikusten da).

Eraginkortasun energetikoaren arloan, 2009an azpimarragarriak dira Energiaren Euskal Erakundearen laguntza publikorako programak, eta leiho, etxetresna elektriko, galdara, kanpoko argiztapen publiko eta ibilgailuen Renove planak.

Hala, Energiaren Euskal Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko hitzarmenaren bidez, 5 kW-eko 175 instalazio jarri dira martxan Bigarren Hezkuntzako institutuetan.









Bestalde, EAEko 144 udalek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute Energiaren Euskal Erakundearekin, udalerriko eremu energetikoan jarduerak gauzatzeko, bi lan-ildo hauei jarraiki:

- ✓ Udalaren lokaletarako eta argiztapen publikorako udal-aholkularitza energetikoa. 2009an, bi fase hauetan ari gara ezartzen ildo hori: lehen fasean, 5 udalerritan ezarri zen lehen seihilekoan; bigarren fasean, EAEko beste 13 udalerritan ezartzekoa da bigarren seihilekoan.
- ✓ Energia elektrikoaren eta erregaiaren kontsumoaren monitorizazioa udalaren lokaletan. Ildo hori EAEko 26 udalerritan ari gara ezartzen.

Bestalde, diru-laguntzen lerroak daude, existitzen diren eraikin txikiagoetan energia berriztagarriak instalatzeko, Energiaren Euskal Erakundeak eta Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak emandako funtsekin (2.440779 €). Tenperatura baxuko eguzki-instalazioak dira lehentasunezko eremuak, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren arabera haiek egitea beharrezkoa ez denean; tamaina txikiko eguzki-instalazio fotovoltaikoak, instalazio eolikoak eta biomasa-instalazioak.

Tamaina handiagoko instalazio berriztagarrietarako, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak urteko diru-laguntzen programak ditu, eta Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta Energiaren Euskal Erakundearen artean hitzarmen bat dago, eraginkortasun energetikoa duten eta berriztagarriak diren instalazio berezientzat.

2.6 Hondakinak murriztea eta tratamendurik gabeko isurketak zero izatea


	6. HELBURUA. HONDAKINAK MURRIZTEA ETA TRATAMENDURIK GABEKO ISURKETAK ZERO IZATEA	JOERA 
<i>Hondakinak murriztea eta hondakinen kudeaketa hobetzea, tratatu gabeko hondakinen isurketak desagerrarazi arte.</i>		
23. konpromisoa, INDUSTRIA-HONDAKINEN ETA BALIO ERANTSI GORDINAREN ARTEKO DESLOTURA. Hondakin industrialen sorrera balio erantsi gordinagatik bereiztea.		
24. konpromisoa, HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA: Hondakin arriskutsuen baliabide materialak berreskuratzea, eta birziklatze-tasa % 65era iristea.		
25. konpromisoa, ERAIKUNTZA ETA ERAISTE HONDAKINAK BIRZIKLATZEA. EAEko eraikuntza- eta eraiste-hondakinen % 70 berrerabiltzea eta birziklatzea lortzea.		
26. konpromisoa, HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK BIRZIKLATZEA: Jatorri industrialeko hondakin ez-arriskutsuen % 75eko birziklatze-tasa lortzea.		
27. konpromisoa, HIRI-HONDAKINAK BIRZIKLATZEA: Sortutako hiri-hondakinen % 35eko birziklatze tasa lortzea.		
28. konpromisoa, HIRI HONDAKINIK EZ ISURTZEA: Tratamendurik gabeko hiri-hondakinik ez sortzea.		

Ditugun datuen arabera, hondakinen sorrerak tipologiaren araberako joera ezberdinak ditu. Horrela, hondakin ez-arriskutsuen sorrera aurreko urtearekiko % 3,6 hazi zen 2007an, eta 3.476.466 tonatan kokatu zen. Hondakin arriskutsuen sorrera ere hazi egin da; hala, 2007ko datuen arabera, hondakin horien sorrera % 5,3 hazi da 2006ko urtearekiko. 2008ko hiri-hondakinen sorrera da salbuespena, 2006an hasitako goranzko joera moztzen baitu (2008an aurreko urtearekiko murrizpena % 4,1ekoa izan zen).

Gainerako konpromisoei dagokienez, joerak positiboak izan arren, ñabardurak egin behar dira batzuetan. Horrela, eraikuntza- eta erauste-hondakinen birziklapena handitzen ari den arren, 2010erako aurreikusitako konpromisotik urrun gaude oraindik (2008an % 42; 2010erako % 70 dago aurreikusita). Era berean, tratamendurik gabeko hiri-hondakinen isurketak beherako joera badu ere, joera hori ez da konpromisora iristeko bezain handia (2008an % 48,4koa zen isurketa; 2010erako guztiz desagertu beharko lukete).

2009an, eta hondakin arriskutsuen arlorako, hondakinen sorkuntza-adierazleen sistema batean egin da lan, sektore industrial jakin batzuetan ezartzeko, haien kontrola hobetu, eta kasu bakoitzean, helburu koherenteak ezartzeko. Zentzu horretan, EAEn sortutako hondakin arriskutsuen prebentzio eta kudeaketa egokirako tresnak diseinatzen jarraitzen dugu.

Hondakin ez-arriskutsuei dagokienez, REMAT proiektua gauzatzen ari gara (lurzoruarekin kontaktuan dauden jatorri industrialeko hondar-material ez-arriskutsuen erabilerarako proiektua).



Eraikuntza- eta erauste-hondakinei dagokienez, hondakin horiek errepideak egiteko erabiltzeko proiektu pilotu bat dago martxan. Proiektu hori Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin batera gauzatzen ari gara (RCD-Baietz). Bestalde, EAEko agregakin birziklatuen erabilerarako arauen gidaliburu bat argitaratu da.

Hiri-hondakinei dagokienez, haien materia organikotik abiatuta konposta egiteko bizi-zikloaren atariko azterketa egin da. Eta 2009ko ekainean berrerabilpenaren Ekocenter berria jarri zen abian Irunen, Emaus Fundación Social-ek kudeatutakoa.

2.7 Gure biodibertsitateari eustea

	7. HELBURUA. GURE BIODIBERTSITATE BIOLOGIKOA MANTENTZEA	JOERA 
<i>Dibertsitate biologikoaren galera geraraztea, lurreko eta itsasoko habitat eta ekosistemak babestuz eta haien jarduera jasangarria berreskuratuz.</i>		
29. konpromisoa, GALZORIKO ESPEZIEAK: 1997-2010 artean, galzorian edo egoera larrian dauden fauna- eta flora-espezieen populazioen bilakaeraren indizeek hoberako joera erakustea.		
30. konpromisoa, BASO-AZALERA AUTOKTONOA: Baso-azalera autoktonoa 2006an (baso-inbentarioa) baino 10.000 hektarea handiagoa izatea.		
31. konpromisoa, HEZEGUNEAK: Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean barneratutako hezeguneen 50 hektarea berreskuratzea.		
32. konpromisoa, NEKAZARITZAKO INGURUMEN-NEURRIAK: nekazaritzako ingurumenaren arloan, biodibertsitatea babestearekin lotutako neurriak jasotzen dituen azalera handitzea, gutxienez, Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren % 10era iritsi arte.		
33. konpromisoa, NEKAZARITZA EKOLOGIKOA: Nekazaritza ekologikorako erabiltzen den azalera haztea, 1.200 hektarearaino.		
34. konpromisoa, BASO-ZIURTAGIRIAK: Ziurtatutako baso-ustiapenen azalera 50.000 hektareara iristea.		
35. konpromisoa, ESPEZIE INBADITZAILEAK: Espezie inbaditzaileen presentzia murriztea		
36. konpromisoa, NATURA 2000 SAREA: Natura 2000 Sareko eremuen barruan, Eskualde Biogeografiko Atlantikoko eremuen % 100 eta Eskualde Mediterraneoko % 30 Babes Bereziko Eremu (BBE) izendatzea.		
37. konpromisoa, PAISAIA: Paisaia berezi eta paregabeen buruzko katalogoan dauden eremuen % 10ean kudeaketa-neurri egokiak aplikatzea.		

Fauna- eta flora-espezieen urteko bilakaeraren interpretazioak joera gurutzatuak erakusten ditu. Arlo horretan ekimen asko abian jarri diren arren, egindako azken azterketek zalantzazko egoera azaltzen dute.

Finkatuenak dauden konpromisoak lehen sektoreari dagozkionak dira, nekazaritzako ingurumen-neurrien, nekazaritza ekologikoaren eta baso-ziurtagirien arloetakoak. Espezie inbaditzaileekin lotutako ekintzei dagokienez, azken urteetan jarduera asko gauzatu dira arazoaren irismena zehazteko, eta espezie horiek kontrolatu eta errotik ateratzeko.

Gune naturalei dagokienez, 2009an, ez dira erabili haien kudeaketa eraginkorrerako aurreikusita zeuden bitarteko guztiak. Hala, 2008ko azaroan, jendaurrean azaldu zen EAEn Natura 2000 Sarea garatzen duen Dekretuaren proiektua, eta laster eskura izango ditugu eremu atlantikoko Batasunaren Garrantzizko 23 Lekuen (BGL) gida-plana eta kontserbazio neurri buruzko dokumentuak, eremu horiek Babes Bereziko Eremu⁷ (BBE) izendatu aurretiko urrats gisa.

⁷ Europako Batzordeak Atlantikoko eta Mediterraneoko eremu biogeografikoetako Batasuneko Garrantzizko Lekuen zerrenda onartzen duenetik, sei urteko epea dago Babes Bereziko Eremuak izendatzeko. Batasuneko Garrantzizko Leku izendatu den eremuko habitat naturalak eta espezieak kontserbazio-egoera

Biodibertsitatearen arloan 2009an egindako jardueraren adibide gisara, EAEko flora eta fauna inbaditzaileen diagnostikoaren argitalpena aipa daiteke, eta espezie horiek errotik ateratzeko abian dauden kontrol- eta erauzte-jarduerak:

- ✓ Arabako Foru Aldundia: *Cortaderia Selloana* kentzea Amurrion, Laudion eta Gorbeiaiko Natura Parkean. Bisoi amerikarra (*Mustela vison*) harrapatzeko kanpainak.
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundia: *Cortaderia Selloana* erauzte natura-parkeetara sartzeko errepide, olgetarako eremu, eta errepide-bazterretatik. Bisoi amerikarra (*Mustela vison*) harrapatzeko kanpaina.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia: *Cortaderia Selloana* kentzea Jaizkibelego Batasunaren Garrantzizko Lekutik, eta *Fallopia japonica* kentzea Urolaren arrotik; Gipuzkoako espezie inbaditzaileen kartografia garatzea. *Myocastor coipus*, *Ondatra zibethicus* eta *Procambarus clarkii* espezieentzako tranpak jartzeko kanpainak.
- ✓ Eusko Jaurlaritza: *Baccharis halimifolia*ren erauzte-lanekin jarraitzea Urdaibaiko paduran. 2007an 12,5 hektareatan eta 2008an beste 22 hektareatan jardun ondoren, egun 52 hektarea tratatu nahi dira.
- ✓
- ✓ Itsasertzak mugatzea: Espezie inbaditzaileak mugarritu eta garbitzea Bizkaiko itsasertzean. Itsasertza ekologikoki egokitzea, *Baccharis Halimifolia* eta *Cortaderia Selloana* landare inbaditzaileak kenduz eta kontrolatuz, eta itsasoko eta lurreko jabari publikoko eremuen eta udal-titularitatea duten aldameneko lursailen ingurumen-berreskurapena.
- ✓ Zebra-muskuilua (*Dreissena Polymorpha*) kontrolatzeko segimendu- eta koordinazio-batzordea: 2009ko ekainean, larbak aurkitu zituzten Ulibarriko urtegian, litroko 0,02 larba, hain zuzen ere. Uztailean eta abuztuan ez zen larbarik aurkitu.

Bestalde, 2009an EAEko flora baskularraren Zerrenda Gorria egin zen, Naturaren Babeserako Nazioarteko Batasunak proposatutako irizpideak eta metodologia erabilia.

Hauek izan dira biodibertsitatearen arloan gauzatutako beste jarduera batzuk: Natura Babesteko Legearen 17. artikulua aldatu da Eusko Jaurlaritzak hala proposatuta eta Gobernu Kontseiluarekin adostuta, babestutako eremu naturaletan erauzketa-jarduerak eragozteko; EAE Paisaiaren Europako Hitzarmenaren printzipio, helburu eta neurriei atxiki zaie —paisaien babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea eta arlo horretan Europako lankidetzaren antolatzea da hitzarmen horren helburua—; bestalde, EHUK, Arabako Foru Aldundiak eta UNESCO Etxeak hitzarmena sinatu dute Gasteizen paisaiari buruzko master bat sustatzeko.

Udalerri mailan, Udalsarea 21 Sarearen jardueraren zati garrantzitsu gisa, aipagarria da Biodibertsitate Ekitaldearen sorrera. 17 udalerrik eta 2 eskualdek hartzen dute parte, eta helburua da udalei, Agenda 21en barruan, biodibertsitatearen galera ekiditeko politikak ezartzen laguntzea, ildoak zehaztuz eta ekintzak gauzatzuz. Udalsarea 21en barruan, halaber, proiektu berritzaileak sustatzeko programaren zati gisa, aipatzekoa da Natura 2000 Saretik kanpo Erreterian tokiko eremuko lurzoru publikoan biodibertsitatea kudeatzeko egin den ekimena.

onean izateko edo kontserbazio-egoera onera bueltatzeko beharrezko babes-neurriak hartu behar dira epe horretan.

2.8 Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz

	8. HELBURUA. MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA-EREDU BERRI BATERANTZ	JOERA 
<i>Oinez ibiltzera eta bizikleta eta garraio publikoa erabiltzera bultzatzea herritarrak, gizon-emakumeen mugikortasun-eskaera kudeatzeko. Merkantzien garraioa gehiago egitea itsasoz eta trenez, eta gutxiago errepidez.</i>		
38. konpromisoa. PERTSONEN MUGIKORTASUNA: Bidaiatzeko moduak motorrik gabeko garraiorantz bideratzea.		
39. konpromisoa. SALGAIEN GARRAIOA: Salgaien garraioaren banaketa-modua birbideratzea, eta, lurrez (errepidez eta trenez) egiten den garraio guztiaren % 15 trenez egitea (kilometroko tonatan neurtuta)		
MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA-EREDU BERRI BATERANTZ helburu estrategikoarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak.		
<i>"Eusko Legebiltzarrak, mugikortasunaren kudeaketa-eredu berri bat lortzeko helburu estrategiko gisara, beharrezkotzat jotzen du jarduera-ildo hauek sartzea:</i>		
<ol style="list-style-type: none">1. Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko garraio-agintaritzaren bidez, pilaketak, atmosferarako emisioak eta istripuak murrizteko jardunbide egokien gidaliburu bat egitea.2. Garraibide jasangarriagoak eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten dituztenak lortzeko azterketak eta neurriak finantzatzeko, sektore pribatuaren parte-hartzea sustatzea dute erakunde eskudunek.3. Eusko Jaurlaritzak, udalek eta inplikaturako gainerako eragileek mugikortasun-planak egiten jarraitzea 10.000 biztanletik gorako udalerrietan eta industria-eremuetan.4. Eusko Jaurlaritzak ibilgailu ekologikoen zerrenda bat egitea, IDAEren zerrendarekin koordinatuta, eta zerrenda hori ibilgailuen eskuratzailerik guztien eskura jartzea.5. Erakunde eskudunek erabilera partekatuko ibilgailu pribatuentzat errei bereziak jartzeko aukera aztertzea.		

Azken urte honetan mugimendu-patroiak nahiko egonkorak izan dira, aurreko azterketarekin alderatuta; pertsonen kasuan, automobilen erabilera igo egin da pixka bat, eta salgaien kasuan, tren bidezko garraioa zertxobait hazi da.

Garraioa indar eragile protagonista da sortzen dituen ingurumen-eraginengatik, baina, aldi beran, gure gizartearen jardueraren ezinbesteko zati bat da; beraz, azken urteotan jarduera ugari gauzatu badira ere, gaur egun, eta inoiz baino gehiago, beharrezkoa da gure gizartean garraio- eta mugikortasun-eredu berriak ezartzea. Hala, 2009an, egungo Garraio Jasangarrirako Gidaplanaren betetze-maila diagnostikatzeko lanak hasi dira, 2010-2020 denbora-tarterako Gidaplan berri bat egiteko asmoarekin.





Legegintzari dagokionez, aipagarria da EAEko mugikortasun jasangarriaren etorkizuneko legerako lanak hasi direla. Bestalde, azpiegituren arloan, askotariko proiektu estrategikoei ekiteko oinarriak ezarri dira:

- ✓ Gipuzkoan, proiektu hauek sustatuko dira: Irun-Donostia linea erabat birmoldatzea, Donostialdeko metroa eraikitzea, Altzan geltoki berri bat eraikitzea, Euskotrenen sarea Donostiako hirigunera zabaltzea eta tren Hondarribiraino iristea.
- ✓ Bizkaian, Bilbo Handiaren egituratzaile eta komunikatzaile gisara sustatuko da metroa. Horretarako, aurretik dauden proiektuekin jarraituko da (Basauriko konexioa), eta 4. linearen lanak hasiko dira (linea horrek Rekalde eta Irala auzoak hirigunearekin lotuko ditu). Garraio publiko kolektiboa babesteko, aireportua tren-sistemearekin lotzeko lanak egingo dira.

- ✓ Araban, erakundeek lankidetzaren aldeko apustua egin dute Gasteizen trenaren lur azpitik pasarazteko proiektua aurrera eramateko.

2009an, aurrerapen handiak egin dira tokiko eta eskualdeko eremuan, mugikortasun jasangarrirako planak ezarrita. Tokiko Agenda 21eko tokiko ekintza-planetan jasotzen diren gaien artean, mugikortasun jasangarriaren aldeko ekintzak garrantzitsuenetarikotzat jotzen dira. Aurten, Eusko Jaurlaritza ekintza horiek babesten ari da 2009ko ekainaren 16ko Aginduaren bidez. Agindu horrek garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udal, mankomunitate, bestelako tokiko erakunde, tokiko erakunde autonomo eta tokiko merkataritza-sozietateentzako diru-laguntzak arautzen ditu.

2.9 Lurraldearen erabilera orekatua lortzea




	9. HELBURUA. LURRALDEAREN ERABILERA OREKATUA LORTZEA	JOERA 
<i>Lurraldean eragiten duten sektoreen plangintza bateratua eta koherentea lortzea, lurraldearen artifizializazio- eta zatiketa-arazoak konpon daitezzen.</i>		
40. konpromisoa.	HIRIGINTZA-EKINTZAK ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA: Urtero, hirigintza-ekintzen bidez artifizialtzen den hektarea-kopurua murriztea.	
41. konpromisoa.	AZPIEGITURAK ERAIKITZEAK ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA: Azpiegitura berriak eraikitzearen ondorioz urtero artifizialtzen den hektarea-kopurua murriztuz joatea.	
<p>LURRALDEAREN ERABILERA OREKATUA lortzeko helburu estrategikoarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak.</p> <p><i>"Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du lurraldearen erabilera orekatua lortzeko helburu estrategiko gisara jarduera-ildo hauek hartzea:</i></p> <p><i>Udal-eremuetan, erakunde eskudunek etxebizitzaren garapen berri guztiak gidatuko dituen ekohiriaren kontzeptua barneratzea."</i></p>		

2008an, EAEn, bizitegi-erabilerarako, jarduera ekonomikoetarako edo sistema orokorretarako kalifikazioa duen lurzorua 600,99 hektarea hazi da. Hala eta guztiz, Espazio Libreen Sistema Orokorra kenduta (lurzoru horrek aldaketarik ez du jasaten), 2008an, EAEn artifizialdutako gainazalaren datu global zuzenduaren arabera, hazkundera 345,75 hektareakoa izan da (48.683,31 ha-tik 49.029,36 ha-ra). Urteko % 0,71ko hazkundera adierazten du horrek; beraz, balioa 2005-2008ko denboraldiko % 0,81eko indizea eta 385,85 ha-ko datua baino txikiagoa da.

2009an, Lurralde Antolamenduaren Ildoen berrikuste-prozesuarekin jarraitzen dugu. Estrategia espazial eta funtzional multzo horren azterketan hartutako ikuspegi berria Euskal Hiria 2009 Kongresuaren VIII. edizioan islatzen da. Ikuspegi hori lurralde-antolamenduaren eta haren bitartekoen inguruko hausnarketara bideratuta dago, berrikuntzaren perspektibatik; egungo egoera kontuan hartzen du, eta kualitatibotasuna, lurraldearekiko errespetua eta jasangarritasuna geroz eta gehiago baloratzen dituen gizarte baterantz bideratzen da.

Arlo zehatzagoetan, aipagarria da hirigintza-proiektuetan jasangarritasun-irizpideak integratu direla Sprilurrek gidatuta.

2.10 Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murriztea

	10. HELBURUA. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK MUGATZEA	JOERA 
<i>Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak mugatzea, eta karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioa egitea.</i>		
42. konpromisoa. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK: 2010erako, Kyotoko Protokoloan araututako berotegi-efektuko gasen emisio totalak mugatzea 1990eko emisioen % 14tik gorakoak izan ez.		
BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK MURRIZTEKO helburu estrategikoarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak <i>“Berotegi-efektuko gasen emisioak eta klima-aldaketaren eraginak murrizteko helburu estrategiko gisara, Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du jarduera-ildo hau hartzea:</i> <i>Eusko Jaurlaritzak klima-aldaketaren aurkako gidaliburu bat egitea eta herritarren artean zabaltzea, erabilera eta ohitura kaltegarri eta onuragarriak azaltzen dituena, eta helburu horrekin koherenteak diren kontsumo-ohiturak sustatzen dituena”.</i>		

2009an 25,2 milioi tona berotegi efektuko gas isuri ziren; aurreko urtean baino % 10 gutxiago. Isurpenen intentsitatea ere txikitzen jarraitzen du (isurpenak guztira BPGri dagokionez).





2009an Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa eratu da, Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzen duen apirilaren 7ko 77/2009 Dekretuari jarraiki. Abenduan egin zen KAEBren lehen bilera. Ingurumen Sailburuordetzak eta Industria, Etxebizitza, Garraio, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunek hartu zuten parte. Bestalde, Klima Aldaketaren Euskal Legea egiteko lanak hasi dira.

Urtean zehar, Stop CO₂ Euskadi ekimena sustatu zen. Klima-aldaketaren aurkako borrokan herritarrak sentsibilizatzeko eta parte-hartze aktiboa eta jokaera eredugarriak sustatzeko, herritarren, enpresen eta administrazio publikoen jarduerak biltzen ditu ekimen horrek. 2009an, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murrizteko 43 udal-proiektu eta 17 enpresa-proiektu finantzatu dira.

Udalerri-mailan, aipagarria da Udalsarea 21en barruan klima-aldaketaren aurkako udal-ordenantzak onartzeko edo ekimen berritzaileak ezartzeko 6 euskal udali eman zaien laguntza; esate baterako, Balmasedako hirigunearen oinezkotze-sistema hobetzeko laguntza.

Bestalde, abenduaren 7tik 18ra, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak bat Kopenhageko COP-15 Konferentzian izan zen, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Batzarreko alderdien hamabosgarren konferentzian. nrg4sd (Network of Regional Governments for Sustainable Development) e Iclei (Local Government for Sustainability) sareetako zenbait *side-event*etan hartu zuten parte Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak. Haietan, Euskal Autonomia Erkidegoko klima-aldaketaren aurkako politika azaltzeko eta jarduera egokiko esperientziak partekatzeko aukera izan zuten. Aipatzekoa da, halaber, TCG eta Encore gisako nazioarteko sareetan gauzatutako lankidetzak estua.

2.11 Klima-aldaketara egokitzea

	11. HELBURUA. KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA	JOERA 
<i>Klima-aldaketara egokitzeko behar diren kudeaketak egitea, eta aurreikusitako inpaktuek egin diezazkiguketen kalteak minimizatzea.</i>		
43. konpromisoa. KLIMA-ALDAKETAREKIKO KALTEBERATASUNA: Euskal Autonomia Erkidegoak klima-aldaketaren aurrean duen kalteberatasuna murriztea		
44. konpromisoa. UHOLDE-ARRISKUA DUTEN EREMUEN ARTIFIZIALIZAZIOA EKIDITEA: Ahal den neurrian, uholdeak izateko arriskua dagoen eremuen artifizializazioa saihestea, uholde horiek 100 urteko birgertatze-aldia badute eta gaur egun garatu gabe badaude.		
helburu estrategikoarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak <i>"Berotegi-efektuko gasen emisioak eta klima-aldaketaren eraginak murrizteko helburu estrategiko gisara, Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du jarduera-ildo hau hartzea: Eusko Jaurlaritzak klima-aldaketak Euskadin izan ditzakeen ondorio guztien (ekonomikoena barne) azterketa egitea eta zabaltzea".</i>		

2009an, klima-aldaketara egokitzeko hiru jarduera berriri ekin zaie. Horietatik bi udal-arloko egokitze-ahalmenarekin lotuta daude; hirugarrena, berriz, inpaktuen, kalteberatasunaren eta sistemen egokitze-ahalmenaren ikerketa-arloko nazioarteko lankidetzarekin.

Udalerrien eremuan, klima-aldaketara egokitzeko gida bat egin da, tokiko erakundeei egokitze-politikak ezartzeko autodiagnostiko bat egiten laguntzeko. Horrez gain, hirigintza-plangintzaren arloan, egokitze-irizpideen dokumentu bat egin da.

Estatuan, beste autonomia-erkidegoekin eta Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoarekin lankidetzan, Klima Aldaketara Egokitzeko 2. Plan Nazionalaren lan-plana egiten ari gara.

Nazioartean, Euskal Autonomia Erkidegoak, 2.10 *BEGen emisioak murriztea* atalean azaldutako foroetan parte hartzeaz gain, beste eskualde batzuekiko koordinazioan ari da Ingurumen Agentzien sarearen bidez, eta, 2009tik, CIRCLE-2 (Climate Impact Research Coordination for a Larger Europe) proiektuko kide da. Askotariko sistemek klima-aldaketaren aurrean azaltzen duten esposizio, kalteberatasun eta egokitzapenari buruzko ikerketaren koordinazio transnazionala da proiektu horren xedea.

3. JASANGARRITASUNERAKO BEHARREZKO BALDINTZAK GARATZEKO BIDEAN AURRERA

2007-2010eko Ingurumen Esparru Programan jasotzen den bezala, helburu estrategiko eta konpromisoek osatzen dute euskal ingurumen-politikaren funtsa. Hala eta guztiz, hori lortzeko, ezinbestekoa da Gobernantzaren (“Gobernu onaren”) bikaintasunaren aldeko apustua egitea. Laburbilduz, ingurumen-politika gizartearekin sinatutako kontratu gisa ulertzea, oinarri izanik gardentasuna, parte-hartzea, emaitzetarako bideratzea, kontu-ematea, eta politika, plan eta programa publikoen arteko koherentzia, haietan ingurumen-alderdiak sartuz.

Horretarako, beharrezkoa da zeharkako bitartekoak erabiltzea, helburu bakoitzarekin lotutako konpromisoak betetzeko garatu beharreko jarduera-ildoan oinarria ezarri eta osatuko dutenak. EAEn *Jasangarritasunaren bidean aurrera egiteko Beharrezko Baldintzak* dira. Jarraian, beharrezko baldintzen atariko informazioa xehatzen da, haiekin lotutako konpromisoak eta adierazleak oinarritzat hartuta.

JASANGARRITASUNERAKO BEHARREZKO BALDINTZAK

1. INGURUMEN-ALDAGAIA BESTE POLITIKA BATZUETAN KONTUAN HARTZEA
2. INDARREAN DAGOEN LEGERIA ETA HAREN EZARPENA HOBETZEA
3. MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILTZEA
4. HERRITARRAK GAITU ETA ERANTZUKIDETZEA
5. INGURUMEN-IKERKETA, -GARAPENA ETA -BERRIKUNTZA
6. NAZIOARTEKO INGURUMEN-LANKIDETZA

3.1 Ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan kontuan hartzea

INGURUMEN-ALDAGAIA BESTE POLITIKA BATZUETAN KONTUAN HARTZEKO beharrezko baldintzarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak.

“Eusko Legebiltzarrak, EAeko 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programaren oinarritzako printzipio gisara, jarduera-ildo hauek ezarri ditu:

1. *Eskumena duten erakunde guztien konpromisoa 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programan hartutako konpromisoak betetzeko, ezarritako egutegia errespetatuta.*
2. *Ingurumen-arloan garatu beharreko politika guztiek, eta batez ere egungo planean jasotakoek, tokiko erakundeen (udalen eta foru-aldundien) adostasuna eta lankidetzaren sustatuko dute, bakoitzaren eskumenak errespetatuta.*
3. *Eusko Jaurlaritzak ingurumen-inpaktua murrizten duten enpresentzako laguntza orokorren informazio-katalogo bat egingo du”.*

Ingurumen Esparru Programak beharrezkotzat jotzen du Euskal administrazio publiko osoan ingurumen-irizpideak txertatzen jarraitzea, eta espresuki aipatzen du Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien sareak arlo horretan duen garrantzia.

Azken urteetan, Udalsarea 21 erreferente sendo bihurtu da tokiko eremutik haratago doazen emaitzak eta hobekuntzak lortzeko sareko lanean. Gaur egun, hauek osatzen dute sare hori: Euskal Autonomia Erkidegoko 199 udalerrri (sareko protagonista nagusiak); Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak eta Euskadiko Udalen Elkarte (EUEDEL).

Erakunde-sare horrek Euskadiko administrazio-maila guztiak biltzen ditu, eta sarea mugiarazten duen eta indar guztiak norabide bakarrean —euskal udalerrietan garapen jasangarri eraginkorra lortzeko bidean— biltzen dituen gakoa da.

Udalsarea 21en azken urteetako jarduera azaltzen duten adierazle orokor batzuk ebaluatutako ekintza-kopurua eta ekimenen garapenean parte hartu duten eragileen kopurua izan daitezke.

	2006	2007	2008
Ebaluatutako ekintza-kopurua	3.928	7.940	9.830
Parte hartu duten eragileen kopurua	472	900	1.100

Tokiko Agenda 21en ekintza-planen ezartze-maila eta EAeko tokiko jasangarritasunaren adierazleen bilakaera EAeko tokiko jasangarritasun-txostenen bidez aztertzen dira. Txosten horiek publikoak dira.

Hona hemen Euskal Administrazioaren politiketan ingurumen-aldagaiek izan duten integrazioaren beste adibide batzuk:

- ✓ Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Bulegoa. 2009ko apirilaren 7ko 77/2009 Dekretuak arautzen du haren antolaketa eta funtzionamendua. Ingurumen, lurralde-antolamendu, nekazaritza, arrantza, industria, etxebizitza, garraio, hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa arloko ordezkariak osatzen dute bulegoa, eta Eusko Jaurlaritzako sailen arteko zeharkako jarduerak sustatzen ditu, klima-aldaketara egokitzeko neurriak hartzeko eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko.
- ✓ Egun abian dagoen Lurralde Antolamendurako Arauen berrikuste-prozesua. Berrikuntzaren ikuspegitik, jasangarritasunaren eta lurraldearekiko errespetuaren irizpideak sartzen ditu oinarrizko premisa gisara.
- ✓ Garraio Jasangarriaren Gidaplan berri bat diagnostikatzeko eta egiteko aurreikusita dauden lanak, eta legediaren arloko ekimenak, etorkizuneko Mugikortasun Jasangarrirako Legea, adibidez.
- ✓ Gidak egiteko instituzioen arteko lankidetzak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzako jasangarritasun-batzordearen sorrera, ikasketa, kontsulta- eta partaidetza-foro gisa.
- ✓ Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren babesa euskal administrazio publikoei Erosketa Publiko Berdean gaitzeko. Horretarako, kontratazio-prozesuetan zuzenean hartu du parte, lantaldeen bidez, laguntza pertsonalizatua emanaz, pleguetan ingurumen-irizpideak txertatuz eta langile publikoei prestakuntza eskainiz.

3.2 Indarrean dagoen legeria eta haren ezarpena hobetzea

Ingurumen Esparru Programak, beharrezko baldintza honen bidez, azpimarratzen du bitarteko arauemaileak sortzea garrantzitsua dela prozedurak batzeko eta sakabanatutako ekintza administratiboak integratzeko, prozedura administratiboak errazteko, eta haien betetze eraginkorra ziurtatzeko.

2009ko uztailaren 1eko Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integraturako 16/2002 Legearen esparruan jasotzen diren Ingurumen Baimenak emateko izapideen kudeaketa izan da gai horri dagokionez 2009an egin den ahalegin nagusietarikoa. Gaur egun, horrela laburbil daiteke EAEko egoeraren argazkia:

- ✓ 29 instalazio mendeko ebazpena jasotzeko zain; horietatik 22k jada igaro dute Informazio Publikoaren fasea. Beste zazpiei dagokienez, aurkeztutako dokumentazioa aski den ala ez aztertzen ari dira, hurrengo fasera ahalik eta azkarrena igaro daitezten.
- ✓ 3 instalazio ebazpen-proposamenaren fasean daude.
- ✓ 235 instalaziok mendeko ebazpena dute.
- ✓ Mendeko ebazpenei buruzko gora jotzeko 111 errekurtsio jada ebatziak izan dira.
- ✓ 122 instalazio ebazpenen eraginkortasunaren azterketa-fasean daude; sustatzaileei dokumentazioa osatzeko 76 errekerimendu igorri zaizkie. Era berean, 2009ko uztailetik hasita, enpresetara ikuskaritza-bisitak egiten dira, baimen eraginkorrak eman ahal izateko.

Azken urteotan kudeaketa-ahalegin handia eskatu duen beste mugarri administratiboa lurzorua poluzioaren prebentziorako eta zuzenketarako otsailaren 4ko 1/2005 Legearen betetzearekin lotutakoa da. Hala, Legearen sinplifikazio administratiborako aldaketa bat izapidetze-fasean dago, salbuespen-baldintzak eta prozedura sinplifikatuak barne.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren legegintza-egutegiak etorkizuneko proiektuak ere jasotzen ditu; adibidez, klima-aldaketari, mugikortasun jasangarriari, eta paisaiaren antolamenduari buruzko legeak egitea, edo Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren babeserako lege orokorra aldatzea.

3.3 Merkatua ingurumenaren alde erabiltze

MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILTZEA beharrezko baldintzarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak

“Berrikuntza eta merkatuari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

– *Gure kontsumo-ohiturei dagokienez, formula berriak bilatzea hazkunde ekonomikoa eta hark eragiten dituen ingurumen-inpaktuak bereizteko.*

– *Merkatu-bitartekoetan eta berrikuntzan sakontzea, ingurunearekiko errespetuzkoagoak diren kontsumo-ohituretara igarotzeko.*

Ingurumen Esparru Programaren hirugarren beharrezko baldintza hauei lotuta dago: zergen erreforma ekologikoa; erosketa publiko berdea; diru-laguntza publikoen orientazioa; prezio, bidesari eta kuoten arloko kontrol publikoa; eta arlo pribatuaren sarrera ingurumenaren kudeaketan eta baliozkotzean. Horren guztiaren helburua da merkatu-sistema erabiltzea seinale egokiak helarazteko, eta, hala, eragile sozial eta ekonomikoak ingurumenaren alde egitera bultzatzea.

Arlo horretako mugarririk aipagarrienetako bat izan da Uraren Euskal Legeak aurreikusitako kanonaren ezarpenari ekitea 2009an. Ezarpenaren lehen urtean sortu diren zailtasunak ikusita, ureztatze-komunitateei epea luzatu zaie hasierako beharrezko aitortpenak egin ditzaten.

Merkatuaren sustapena indartu eta dibertsifikatu egin da azken urtean, hainbat ekimenen bidez:

- ✓ Euskal enpresak babestea eta erakartzea ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzen dituzten enpresentzako laguntza- eta banaketa-zerbitzuen bidez gauzatu da, edo Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak antolatutako Enpresentzako Ingurumen Sari Europarretara 2009an aurkeztu ziren euskal enpresei emandako laguntzaren bidez. Bestalde, karbono-aztarnaren eta produktuen bizi-zikloaren azterketaren metodologiak batzen dituen software-tresna batean lanean dihardugu gaur egun, eta enpresetarako Hobekuntza Tekniko Eskuragarrien transferentzia teknologikorako eta dinamizatorako proiektu bat abian da.
- ✓ Ekodiseinuaren arloan, ekodiseinu-ikasgelen ikasturte berri bat izan da aurten, eta hogeit hamar proiektu berri garatu dira zazpi euskal enpresatan. Bestalde, ekodiseinurako bost gida sektorial burutu dira sektore hauetarako: elektrizitatea/elektronika, ontziratzea eta paketatzea, altzariak, automobilgintzako osagaiak, eta eraikuntzarako materialak. Guztira, enpresetarako hogeita zazpi aplikazio praktiko egin dira.

Ziurtagiriaren arloan, lhobek, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, ISO taldean parte hartzen du ekodiseinuaren ISO14006 arau berria egiten. Halaber, euskal enpresei babesa eskaintzen die ziurtagiriak ezartzeko eta produktu-ziurtagiriak dituztenen berri zabaltzeko. Azkenik, aipatzekoa da gaur egun lanean ari garela energia erabiltzen duten produktuei buruzko Direktibaren esparruan Europako Batzordeak onartutako Ekodiseinurako lau arau berriak aplikatzeko metodologia baten garapen eta ezarpen pilotuan.

Arlo honetan lortutako ezagutza www.productosostenible.net web-orrian eskuratu daiteke.

- ✓ Erosketa eta kontratazio publiko berdeari dagokionez, administrazioan eta sektore pribatuan ugaritu egin dira prestakuntza-ekintzak 2009an. Bestalde, gaiari buruzko banakako aholkularitza jarri da abian enpresa eta administrazioentzat. Eta, lhobe-line zerbitzuaren bidez, hornitzaile jasangarriari buruzko datu-base baterako sarbidea eskaintzen da.


2009ko ekainean “Administrazio publikoa eta erosketa eta kontratazio publiko berdea. Esperientziak partekatzen ditugu guztiok batera aurrera egin dezagun” nazioarteko jardunaldia egin zen. Azkenik, abian dira elikaduraren banaketa-sektorearekin batera egindako lan-proiektu bat, sektore horretan ezagutza sortzeko eta eraginak murrizteko prestatua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aeronautika eta Espazio Klusterrarekin batera garatutako ekimen bat, erakunde horietan erosketa berdea integratzeko helburua duena.


- ✓ Eraikuntza jasangarriaren arloan, inplikaturako eragileak bultzatzeko ahalegin handia egin da, zenbait ekimenen bidez. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzako Jasangarritasun Batzordea sortu da; industria-, administrazio-, bulego- eta merkataritza-arlorako eraikuntza-gidak burutu dira; eta eraikuntza jasangarriko proiektua jarri da abian birgaitze-proiektuetan.
- ✓ Biodibertsitateari dagokionez, azterketa-fasean dago ingurumen-zerbitzuengatik ordainketa-sistemaren aplikazioa, Euskal Autonomia Erkidegoan natura babesteko eta enpresak kudeatzeko merkatu-bitarteko gisara.
- ✓

3.4 Herritarrak gaitu eta erantzukidetzea

Eskoletan, Tokiko Agenda 21eko prozesuen garapena Eskolako Agenda 21en bidez egituratzen da. Ingurumen-hezkuntzarako tresna baliotsua da. 2008-2009 ikasturtean, 465 bat ikastetxek hartu dute parte, EAEko derrigorrezko heziketak ikastetxeen % 70ek, gutxi gorabehera.

% de centros de enseñanza obligatoria en Agenda 21 Escolar





Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Baldintza honek agerian jartzen ditu ingurumen-informazioa zabaltzeko eta informazio horretarako sarbidea errazteko beharra eta ingurumen-gaietan kontzientzia hartzeko herritarren parte-hartzearen garrantzia.

Hala, Ingurumen Esparru Programan aipatutako tresnarik garrantzitsuenetarikook Tokiko Agenda 21eko prozesuak dira, Tokiko Agenda 21 foroen eta gisako tresnen bidez funtzionatzen dutenak. 2008an, 51 udalerrik hartu zuten parte foro horietan. Batez beste, 4 edo 5 saio egin ziren udalerriko, eta saioko 19 lagunek hartu zuten parte. Urte osoan, guztira 4.200 pertsona bertaratu ziren.

Bestalde, herritarrek parte hartzeko beste zenbait mekanismo daude; ingurumenaren kontseilu sektoriala eta lantaldeen gaikako bilerak, esate baterako. 2009an, Tokiko Agenda 21en esparruko parte hartzeko prozesu horien azterketa-prozesu bat egiten eta prozesu horiek hobetzeko proposamenak aztertzen ari gara.

3.5 Ingurumen-ikerketak, -garapena eta -berrikuntza

INGURUMEN-IKERKETA, -GARAPENA ETA -BERRIKUNTZA beharrezko baldintzarekin lotutako Eusko Legebiltzarraren ebazpenak
"Ingurumen-berrikuntza eta -ikerketari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:
– *Ingurumen-berrikuntza eta -ikerketak sustatzea Euskadi Europako lurraldeen abangoardian kokatzeko.*
– *Biodibertsitatearen arloan ezagutza-, ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak sustatzea EAE nazioarteko erreferente bihurtzeko".*

Ingurumen Esparru Programaren beharrezko baldintza horren helburua da EAEko I+G+b gaitasuna finkatzeko oinarriak ezartzea ingurumen-ikerketak estrategikoan eta ingurumen-produktu eta -teknologiaren berrikuntzan lidergoa izango duen giza kapitalarekin.

Nazioarteko itunak eratzeko eta ingurumen-berrikuntzako proiektuak EAera erakartzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila buru duen ezagutza-plataformak, Tecnalia, Innobasque, IK4 Alliance Research eta EHUekin batera, "Sustainable Development: a challenge for European research" konferentzian parte hartu zuen. Konferentzia hori Europako Batzordeko Ikerketarako Zuzendaritza Nagusiak antolatu zuen.

Euskal erakundeek harreman garrantzitsuak egin dituzte Europako beste erakunde batzuekin. Harreman horien bidez, ingurumenaren arloko Europako Ingurumen Politikarekin eta EAEko ingurumen-politikekin bat egiten duten sei I+G proiektu sor daitezke etorkizunean.

+ Innova strategiaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Ihobe eta SPRI sozietate publikoek lankidetzak areagotu dute EAEko ETEetan ekoberrikuntza sustatzeko eta Berrikuntza Agendetan ingurumen-faktorea txertatzeko. Horretarako, lehendik dauden mekanismoak aprobetxatu dira, eta funtzio publikoaren eraginkortasuna hobetu da.

Aurten, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Ingurumen Behatokiaren prestaketa-lanei ekin die. Unibertsitateari, zentro teknologikoei, administrazioei eta sektore pribatuari egindako kontsulta adituak buruzko ezagutza kudeatzeko tresna aurreratua da Behatokia.

Klima-aldaketari buruzko ikerketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, 2009an, EAEko Klima Aldaketaren Ezagutza Mapa aurkeztu zuen lehenbiziko aldiz; ekimen hori aitzindaria izan da estatuan. Klima-aldaketari buruzko ikerketak egiten duten EAEko talde guztiek, zentro teknologikoei, unibertsitateei eta BCK hartu dute parte mapa horren eraketan eta definizioan. Klima Aldaketaren Ezagutza Mapa tresna berritzailea da, eta EAEn gai horri buruz lanean diharduten eragile teknologiko eta zientifikoaren ezagutza xehatua identifikatzeko aukera ematen du.

Biodibertsitateari buruzko ezagutza adituaren, ikerketaren eta berrikuntza-jardueren sustapena Euskadiko Biodibertsitate zentroaren (Madariaga Dorrea) biodibertsitate-eremuan oinarritu da. Aurten, proiektuak hauek landu dira, besteak beste: espezieen azterketa, lurralde mailako ingurumen- eta ekonomia-aldagaien integrazioa eta dibertsitatearen ekonomiaren arloko proiektuak.

3.6 Nazioarteko ingurumen-lankidetza

Beharrezko baldintza honen bidez, Ingurumen Esparru Programak euskal ingurumen-politika nazioartean kokatu nahi du, ingurumen-arazoak konpontzen laguntzeko beharrezkoa den koordinazioa indartzeko, arazo horiek, eskuarki, globalak izaten baitira.

Azken urte honetan, nazioarteko itunak sinatu eta sareetako parte-hartzea sustatu da, estatuan eta nazioartean konfiantzako sare bikain bat lortzeko. Sareetan parte hartzeak, bestalde, aukera paregabea ematen du EAera ingurumen-berrikuntzako proiektuak erakartzeko, eta horretarako lan egin da azken urte honetan, dokumentu honen 3.5 kapituluan adierazitako ildoetara jarraiki.

Hala, Ihobe erakunde publikoa ERAnet Europako sarera sartu da oraintsu —Eranet sareak klima-aldaketari lotutako I+G programak koordinatzen ditu—, aktiboki parte hartu da Europako administrazio publikoek osatutako Common Forum on Contaminated Land-en, eta lankidetzan jardun gara Europako Twinning proiektuan, BRGM Frantziako institutuarekin batera, lurzoru poluituei buruzko ingurumen-ezagutza Europan indarra hartzen ari diren herrialdeei helarazteko).

Azkenik, abenduaren 7tik 18ra, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak bat Kopenhagen izan zen, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Batzarreko alderdien hamabosgarren konferentzian.

ERANSKINA II. IEP-AREN 44 KONPROMISOAK, 2009. URTEA

HELBURUA: AIRE GARBIA


Lurralde osoan airearen kalitatea hobetzea, pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean duen eragin bereziagatik, hiriguneetan arreta berezia jarritz.

1. konpromisoa: AIREAREN KALITATEA


Kalitatearen indizea on edo onargarri kategoriatakoa duten aireak % 95etik gora izatea; eta txar, oso txar edo arriskutsu kategoriatakoak, % 1etik behera. Txar, oso txar edo arriskutsu kategoriatako airea jasaten duen populazioa 2006koa baino % 20 txikiagoa izatea.

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

2009an adierazle horrek 2008ko joerari eutsi dio, eta airearen kalitate-indizearen helburua gainditu du; ona edo onargarri kategoriak % 97,43ra iritsi dira. Kategoriak baxuak jasaten dituzten biztanleen ehunekoan egindako aurrerapenak txikiagoak dira; beraz, zaila da 2010erako aurreikusitako helburua lortzea. Airearen kalitate ona edo onargarria



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Estatuan, poluitzaileen araberako airearen kalitate-adierazleek erakusten dute NO₂-aren kutsadura oraindik ere kezkarria dela hiri handietan. Eskuarki, 2005era arte ozono-mailaren gaitzearren hazkunde azkarra nabarmentzen da, eta urte horretatik aurrera hasi zuen beherakada. Horrez gain, partikulen eta NO₂-aren urteko batez besteko kontzentrazioa pixka bat jaitsi egin da; 2003arte NO₂-aren gaitzearren maila jaitsi egin zen, gero berriro ere handitzeko.

Europar, 1997-2007 denboraldirako dugun informazioak erakusten du indarrean dagoen legeriak ezarritakoa baino kontzentrazio handiagoa jasaten duten herritarren ehuneko poluitzaileko: % 20-50 PM₁₀ partikulentzat, % 13-41 NO₂-arentzat, % 14-62 O₃-arentzat, eta % 1 baino gutxiago SO₂-aren kasuan.

2. konpromisoa: PARTIKULAK (PM₁₀)


Airearen kalitateari buruzko jarduera-planak egin behar diren eremuetan, partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa % 10 murriztea, gutxienez.

EAEko informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

PM₁₀ partikulen kontzentrazioa asko jaitsi da 2008an, eta kasu guztietan 2010erako aurreikusitako konpromisoa lortu da. Nerbioi Behera eta Ibaizabal Deba Goiena eskualdeetan soilik gaitzearren da lege ezarritako eguneko muga (urte zibileko 35 aldiz gaitzearren ezin daitezkeen 50 µg/m³).

Erasandako eremuen urteko batez besteko kontzentrazioa 22 µg/m³-koa izan zen 2008an; 2010erako aurreikusitakoa, 30 µg/m³, hobetu zuen.

	PM ₁₀ -en (µg/m ³) urteko batez besteko kontzentrazioa							Konpromisoa 2010
	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	
Hegoaldeko Araba	17	15	16	17	15	13	13	
Nerbioi Garaia	23	26	25	28	31	23	21	
Oria Garaia	32	36	34	34	30	20	20	30,3
Urola Garaia	32	33	33	31	37	21	26	28,2
Nerbioi Beherea	34	36	36	36	35	27	25	32,2
Donostialdea	37	33	28	28	28	24	24	25,3
Enkarterri	28	20	22	23	24	20	20	
Ibaizabal - Deba Garaia	37	37	37	37	31	20	22	33,2
Kostaldea	31	26	26	25	21	19	19	22,8
Arabako Lautada	29	28	26	27	25	20	18	24,4
Arabako Errioxa	-	15	22	23	19	16	17	
Mugak gaitzearren dituzten eremuen batezbestekoa	33	32	31	31	30	22	22	28

 Airearen kalitateari buruzko jarduera-planak egitera behartuta dauden eremuak
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Espainiako 2008ko Ingurumen Profilean emandako datuek adierazten dute PM₁₀ partikulen kontzentrazioak 40 µg/m³ azpitik egonkortzeko joera duela 2005etik. Hala eta guztiz, 2007an, hirietako estazioetan batez besteko altuenak zituen Europako Batasuneko herrialdea Espainia zen; 30 µg/m³ -tik gora.

3. konpromisoa: PM_{2,5}

"Egungo PM_{2,5}-aren urteko muga-balioa (EBk adieraziko duena) ez gainditzea sareko estazioetan."

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

EAEko airearen kalitaterako eta kontrolerako sarean erregistratutako PM_{2,5}-aren urteko batez besteko kontzentrazioa Europako Batasunean ezarritako muga barruan dago⁸.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Europako Batasuneko muga gainditzen duten estazioen kopurua	0	0	0	0	0	0

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Atmosfera poluitzen duen materia partikulatua tamaina-marjina zabal baten barruan egon daiteke. Hala eta guztiz, frogatua dago osasunerako kaltegarrienak diren partikulak txikiak direla. PM_{2,5} partikulak <2,5µm-ko diametroa duten partikula finak dira.

Europako airearen kalitateari eta atmosfera garbiagoari buruzko 2008/50/EE Direktibak adierazten duen bezala, PM_{2,5}-ek osasunari kalterik eragiten ez dioten atarimugarik ez da zehaztu oraindik; joerak, beraz, beherazkoa izan behar du, biztanlearen sektore zabal batek kalitate hobeko aire batez gozatzeko aukera izan dezan. Giza osasunaren gutxieneko babes-maila ziurtatzea da Direktiba honek 2015eko urtarrilaren 1erako ezarritako 25 µg/m³-ko muga-balioaren helburua.

Espaniako Ingurumen Profilak adierazten du 2000-2007 denboraldian PM_{2,5}-ak % 6,6ko hazkundera izan zuela, eta 2006ko jaitsiera indartsuaren ondoren, 2007an berriro nabarmen igo zela.

4. konpromisoa: POLUITZAILEEN EMISIOAK


NO_x, SO₂ eta KOLEn emisioak ehuneko hauetan murriztea, 1990ekoekin alderatuta: NO_x :-% 31; SO₂ :-% 64; KOLEM: -% 58."

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia


2007rako datuek aurreikusitako bilakaera berresten dute; horrela, sufre dioxidoaren emisioen konpromisoa lortzea bideragarritzat jotzen da. Hala eta guztiz, azken hiru urteetako NO_x-aren beherako joera ez da nahikoa izan 2010erako aurreikusitako helburua lortzeko. KOLEn kasuan emisioak ez dira asko aldatu oinarri-urtearekiko; beraz, hartutako konpromisotik oso urrun gaude. Espainian antzeko joerak ikusten dira, baina KOLEn kasuan emaitzak zertxobait hobeak dira.

⁸ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/50/EE Direktibak, Europako airearen kalitateari eta atmosfera garbiago bati buruzkoa, 25 µg/m³ ezarri du PM_{2,5}-entzako balio objektibotzat 2010erako, eta balio hori bera 2015erako (Direktibaren XIV. Gehigarria).


SOx-aren emisioak



NOx-aren emisioak



KOLen emisioak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, nekazaritza eta Arrantza Saila eta Ingurumen, Landa Gune eta Itsas Inguruko Ministerioa.

Estatu Kideen 2006ko datuak konparatuta, ikus daiteke 2001/81EE Direktibak 2010erako ezarritako emisio-mugatik urrunen dagoen herrialdea Espainia dela.

5. konpromisoa: ZARATA

MOEk aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata-mailak jasaten dituen populazioa % 10 murriztea, 2006ko datuekin alderatuta.

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ Txikia

Egun, ez dago adierazlea globalki baloratzea ahalbidetzen duen datu eguneraturik. Azken urteotan ahalegin handienak neurketa- eta ebaluaketa-tresnak eratzen egin dira.

Estatistikako Institutu Nazionalaren "Etxeak eta Ingurumena 2008" azken inkestak adierazten du inguruan zarata-arazoak jasan eta nolabaiteko neurriak hartu dituztenen etxebizitzaren ehunekoa, Autonomia Erkidegoaren eta kausaren arabera. EAEko datuak estatuko batezbestekoa baino zertxobait handiagoak dira (% 26 EAEn, % 25 estatuan).

Europar zaratak erasaten dietela sentitzen dutenen datuek Espainia ehuneko handienetarikoa duen Estatu Kide bezala erakusten dute.

HELBURUA: URAREN KALITATE ONA

EAEko Plangintza Hidrologikoan zehaztutako ur-masa guztiak egoera ekologiko onean egotea eta haiek narriatzen ez uztea, ekosistemen egoera ona eta pertsonen garapena eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

6. konpromisoa: LURRAZALEKO URAK


Lurrazaleko ur-masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, haietako % 80 egoera ekologiko onean egotea lortzeko.

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

EAEko ibaien egoeraren segimendurako sareak 2008an egin zuen kanpaina, ibai naturalen kategoriako 93 ur-masentzako datu hauek lortu dira:

- 42 masak (% 45) egoera ekologiko ona azaltzen dute.
- 22 masak (% 24) tarteko egoera ekologikoa azaltzen dute.
- 29 masak (% 31) egoera ekologiko eskasa edo txarra azaltzen dute.



2004-2008 denboraldiko bilakaeraren azterketaren arabera, ibaien kalitatearen egoera nahiko egonkorra izan da; diagnostikoan urteen arteko desberdintasunak agertzen badira ere, izandako baldintza meteorologiko ezberdinei egotzi behar zaizkie horiek, eta ez presio antropikoari eta haren eragina handitzeari, edo presio horien aurkako neurri zuzentzaileak aplikatzeari.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Itsasertzeko urei dagokienez, haien egoera ekologikoa hobetzeko oraindik asko falta bada ere, 1995-2008 denboraldiko joera oso positiboa da, azken urteetako saneamendu-lanak direla eta. Horri esker, nahiz eta abiapuntuko egoera narriadura handikoa ez izan, azken 3-4 urteetan egoera ona edo oso ona da.

Estuarioetako urei dagokienez, narriadura handiagoa izan arren, 1995-2008 denboraldian hobekuntza nabarmena izan da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

2007-2008ko ziklo hidrolotikoan aztertu diren EAEko barneko laku eta hezeguneei dagokienez, emaitza hauek lortu dira:

- % 37k egoera ekologiko ona du.
- % 26k tarteko egoera ekologikoa du.
- % 26k egoera ekologiko eskasa du.
- % 11k egoera ekologiko txarra du.

Horrek adierazten du EAEko hezegunak, eskuarki, nahiko erasanda daudela.

Estatuan, "Jasangarritasuna Espainian 2008" txostenean Uren Kalitate Orokorren Indizearen⁹ emaitzak jasotzen dira, eta 2005era arte jasotako datuak interpretatzen

⁹ Gainazaleko ur kontinentalen kalitateari buruzko informazioa ematen duen balio adimentsionala, lagin baten 23 parametro analitikoetatik lortua. 0 (ur oso poluituak) eta 100 (poluitu gabeko urak) artean egon daiteke.

dira. Arro hidrografikoka, Duerokoa, Iparraldekoa eta Ebrokoa dira egoera onenean daudenak, % 83, % 81, eta % 70eko balioekin, hurrenez hurren. 2005ean UKO indizearen balioa % 75etik gorakoa izan zen. Beste muturrean daude Segurako arroa (estazioen % 27tan kalitatea onartezina da), eta Guadianako Arroa (estazioen % 11,5etan kalitatea onartezina da).

Bestalde, Espainiako 2008ko Ingurumen Profilak islatzen du ibaien poluzio organikoa —Oxigenoaren Eskaera Biologikoaren (OEB) eta amonio-kontzentrazioaren arabera neurtua—, zertxobait handitu zela 2008an. Arazo hori Uren Kalitatearen Plan Nazionala aplikatuta konpontzea espero da: 2007-2015 Saneamendu eta Arazketa. Horrela, 1992-2006 denboraldian ibaiak zuten OEBaren eta amonio-kontzentrazioaren joera positiboa berreskuratuko dira.


7. konpromisoa: UR ARTIFIZIALAK


Ur-masa artifizialak eta oso eraldatuak babestea eta hobetzea, % 80 egoera kimiko onekoaK eta indar ekologiko handikoak izatea lortu arte.

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ Txikia

Konpromisoa baloratzeko erabili diren indize fisiko, kimiko eta biologikoek adierazten dute azken urtean egoerak okerrera egin duela. Nolanahi ere, beharrezkoa da argitzea asko eraldatutako ur-masen diagnostikorako, orain arte ur masa naturalen metodologia orokorra aplikatu dela, eta egoeraren bilakaera bestelakoa izan daitekeela etorkizunean, potentzial ekologikorako berariazko ebaluazio-sistemak baitituzte.

Bestalde, kontuan izan behar da oso eraldatutako ur-masa horiek presio handiak jasaten dituztela, hiri-lurzoru eta lurzoru industrialetan duten egoeratik eta jasaten dituzten alterazio hidromorfologikoengatik.





Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

8. konpromisoa: LURPEKO URAK


“Lurpeko ur-masak babestu, hobetu eta leheneratzea. Ur horien erauztearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren % 80 egoera onean egoteko.

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

2000/60/EE Direktibaren arabera, lurpeko uren egoera ona da lurpeko ur-masa baten egoera kualitatiboa eta egoera kimikoa ona baldin badira. Egoera kuantitatiboaren azterketaren ikuspegitik, EAEko lurpeko ur-masen % 100 egoera onean dago.

Egoera kimikoari dagokionez, egoera 2004koaren antzekoa da; alegia, EAEko lurpeko ur-masen % 7 ez da egoera kimiko onaren kalifikaziora iristen: Gernikako lurpeko ur-masetan industria-jatorriko poluzioa dago akuiferoaren zati batean. Gasteiz eta Mirandako lurpeko ur-masetan nekazaritza-jatorriko nitratoengatiko poluzio orokorra dago.


EAEko lurpeko uren inpaktua



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Lurpeko ur-masek 2015erako ingurumen-helburuak ez lortzeko arriskua ezagutzeko presio eta eraginen azterketa bera Espainiari aplikatuta, emaitzak oso aldakorak dira mugape hidrografikoaren arabera:

Espainiako lurpeko ur-masen inpaktua



Iturria: Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Eremuko Ministerioa.


9. konpromisoa: HONDAKIN-URAK

9. konpromisoa: "Saneamendu-azpiegitura publikoetara bideratu daitezkeen hiriko hondakin-urak (populazioaren % 97) HUA motako arazketa-sistemen bidez tratatzea dagokien isurketari eta ingurune hartzaileari egokituta".

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

2008an eutsi egin zaio joera positiboari, HUAK zerbitzatutako herritarren ehuneko handitu egin baita. Hala eta guztiz, aurreikusitako helburua lortzeko beharrezkoa izango litzateke eraikitzen ari diren eta proiektatuta dauden HUAen egikaritze-erritmoa handitzea.

HUAK zerbitzatutako herritarren ehunekoak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Aurrerakuntza handiak egin arren, Espainiak ez ditu erdietsi 91/271/EEE Direktibaren 2005erako helburuak, eta EB-15eko herrialdeetan atzeko postuetan dago. 2007an, hiriko hondakin-uren poluzio-kargaren adostasun-maila % 78 izan zen, hondakin-uren tratamendua jasotzen duten biztanle baliokideen ehunekoan. Proportzio hori % 93ra igoko litzateke eraikitzen ari diren instalazioak kontuan hartuta.

Azken datuen arabera, aurrerapen garrantzitsuak egin dira Europako hegoalde, hegoalde eta ekialdean, baina aurrerapen horiek Europa erdialdean eta iparraldean egindakoak baino eskasagoak izan dira.

10. konpromisoa: BAINATZEKO URAK


"Bainatzeko uren laginketa-puntuaren % 95k kalifikazio ona edo onargarria izatea lortzea."

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

Bainatzeko urrei dagokienez, 2007an 2010erako aurreikusitako konpromisoa lortu ondoren, 2008an hoberako joerari eutsi egin zaio bainatzeko uren laginketa-puntuaren % 3k soilik ez du lortu ona edo onargarria kalifikazioa.




EAEko bainatzeko uren kalitatea



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila

Espanian, 2008ko laginketa-puntuen ehunekoia oraindik eta hobetoagoa da. Hala, % 99,84 puntu ontzat edo oso ontzat hartzen dira itsasoko bainu-uren kasuan, eta % 98,3 barneko bainuko uren kasuan.

EAEko bainatzeko uren kalitatea



Iturria: Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Eremuko Ministerioa.

Europako bainatzeko urei buruzko 2008ko datuek egoera on hori berresten dute Europako kasuan. Aztertutako 1.887 bainatzeko eremuen % 99,4k kalitate-baldintzak betetzen zituzten.


11. konpromisoa: EDATEKO URAK

"Euskal herritarren % 95k kalifikazio egokiko edateko ura jasotzea lortzea.

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

2007an aurreikusitako konpromisoa lortu arren, 2008an datuak zertxobait okertu dira, kalifikazio egokiko edateko ura jasotzen duten herritarren portzentajea % 94ra arte murriztu baita. % 3k onargarritzat kalifikatutako ura jasotzen du.

EAEko edateko uren kalitatea



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila

Espanian, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren azken txosten teknikoak, 2005-2007 hirurtekoari dagokionak, adierazten du hirurtekoako indarrean dagoen legeriaren arabera, giza kontsumorako uraren kontrolaren emaitzen adostasun orokorra % 99tik gorakoa dela.

HELBURUA: LURZORUAREN POLUZIOA PREBENITZEA ETA ZUZENTZEA
 Lurzoruaren kudeaketa ahalik eta hobereana lortzea, poluzio historikoa kentzea lehenetsiz eta poluzio-mota berriei aurrea hartuz.


12. konpromisoa: LURZORUAREN POLUZIOA PREBENITZEA

Lurzoruaren poluzioa prebenitzea, horretarako dauden tresnak erabilita (egoeraren atariko txostenak)

EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

2009an erasandako jardueren partetik 141 egoeraren atariko txosten berri jaso dira; beraz, 3.820 txosten Administrazioaren esku daude, jarduera horiek kokatzen diren tokiko lurzoria poluituta dagoen ala ez baloratzeko.

Jasotako atariko txosten guztietatik euskal administrazioak jada 3.676 baloratu ditu; % 96, alegia. Hurrengo pausoa izango da balorazio horietatik eratorritako berariazko ekintzak ezartzea, egoerak hala eskatzen duen kasuetan.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

13. konpromisoa: LURZORUAK ERABILERA BERRIETARAKO LEHENERATZEA

Poluituta egon daitezkeen 407 hektarea lur leheneratzea, hiri-plangintzak erabilera edo jarduera berriren bat egitea aurreikusten badu.

EAEko informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

Adierazlearen joera positiboari eusten zaio. 2009an 34 hektarea berri leheneratu ziren; 2000tik hona 292 hektarea leheneratu dira guztira.

Adierazleak bilakaera positiboa adierazten badu ere, agian, aurrerapena ez da nahikoa 2010erako erabilera berrietarako 407 hektarea leheneratzeko konpromisoa lortzeko.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Europaraino, 80.000 kokalekutik gora leheneratu dira azken 30 urteotan, datuak eskuragarri dituzten herrialdeetan. Herrialdeka, asko aldatzen da lurzoru poluituak leheneratzeko gastuaren jatorria. Hala, Espainian gastuaren 100 % publikoa da, eta Frantzian aldiz % 7k soilik du jatorri publikoa (2005eko datuak). Gaurdaino ahalegin handiak egin badira ere, hamarkada batzuk beharko dira jasotako poluzioaren oinordetza leheneratzeko.

14. konpromisoa: ERABILERA BERRIRIK GABEKO LURZORUAK LEHENERATZEA

Poluituta egon daitezkeen eta hirigintza-plangintzak erabilera edo jarduera berririk aurreikusten ez duen 35 hektarea lurzoru leheneratzea.

EAEko informazioaren kalitatea: Ez dago informaziorik eskura.

Hiri-planeamenduak erabilera edo jarduera berririk egitea aurreikusten ez duen lurzoruak leheneratzeko jardueren hondakin irismenari buruz aurreko edizioetan aipatutako irizpideari eusten zaio, orain arte erabilera berrietarako edo planifikatutako jardueretarako lurzoruetara mugatu baitira ahaleginak.

15. konpromisoa: HONDAKINDEGI EZ-AKTIBOAK

“Jabetza publikoko hondakindegia ez-aktiboaren etengabeko ingurumen-kontrola eta -segimendua egitea”

EAEko informazioaren kalitatea: ★ Txikia

2008ko Ingurumen Urtekariak geroztik aztertutako azken denboraldian aurrera egin da EAEko hondakindegia ez-aktiboaren ekintzen lehenespenean eta kontrol- eta segimendu-lanen sistematizazioan.

Lurralde historikoa	Kokaleku-kopurua	Azalera (ha)
Araba	86	88
Bizkaia	138	491
Gipuzkoa	65	150
Guztira	289	729

HELBURUA: BALIABIDEEN KONTSUMO ARDURATSUA

Baliabide naturalen kontsumo arduratsua sustatzea (ura, energia, materialak eta lurzorua), ikerketaren eta berrikuntzaren bidez eraginkortasuna optimizatuz eta, horren bidez, lehiakortasuna hobetuz.


16. konpromisoa: KONTABILIZATU GABEKO URA

“Kontabilizatu gabeko uraren hiri-eskaria murriztea, hornitutako populazioaren % 80an % 25era iritsi arte”.

EAEko informazioaren kalitatea: ★ Txikia

Adierazlerako hurbilketa eguneratu egokientzat banaketa-sareko ur-galeren ehunekoa hartzen badugu, esan beharra dago, 2000 eta 2004. urteen artean hobekuntza handiak egin diren arren, azken urte horretan inflexio-puntu bat egon dela, eta hortik aurrera, 2007ko datuek berresten duten moduan, nolabaiteko joera negatiboa agertu da; hain zuzen, 2007an, galerak % 2,8 hazi ziren aurreko denboraldiarekiko.

Ur-galeren portzentajea banaketa-sarean



Iturria: Estadística Instituto Nacionala

Erreferentzia bezala, Espainiako batez besteko galeren ehunekoa % 17,30 da.


17. konpromisoa: URAREN PRESIO HANDIKO ESKARIA

“Uraren hornidura publikoaren eta industria- eta nekazaritza-jardueraren presio handiko eskaria % 20 murriztea 2001eko datuen aldean”.

EAEko informazioaren kalitatea: ★ Txikia


2007an, EAEn uraren presio handiko eskaera zertxobait hazi zen aurreko urtearekiko, eta 2005ekoaren antzeko mailara iritsi zen.

Uraren horniketa publikoaren presio handiko eskaria



Iturria: Estadística Instituto Nacionala

Autonomia-erkidegoka, urteen arteko datuen aldaketek antzeko joera adierazten dute, eta gorako zein beherako aldaketak oso txikiak dira. Horrela, 2007an, aurreko urtetik uraren presio handiko eskaera-kopurua handitu duten erkidegoek % 10 baino gutxiagoko igoera izan dute, Kanariak izan ezik (+ % 17). Kontrako kasuan, aipagarriak dira Kantabria, Balearrak, Extremadura, Andaluzia eta Gaztela eta Leongo eskaeren jaitsierak.




Iturria: INE

18. konpromisoa: MATERIALEN KONTSUMOA


“Baliabideen kontsumo-eraginkortasuna (eraginkortasun materiala) 2001eko mailan mantentzea”.

EAeko informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

Aurreko urteetako gorako joerari eusten zaio Materialen *per capitako* Behar Totalarekiko¹⁰. Bestalde, aztertutako azken denboraldian, eraginkortasun material totalak behera egin du (materialen behar totala BPGdarekiko); hala, 2005arekiko % 2,3 jaitsi da, eta, eskuarki, 2001eko mailari eutsi zaio.




¹⁰ Unitate fisikotan neurtutako Jarduera ekonomikoaren neurria adierazten duen makroadierazlea, unitate fisikotan; ekonomia bateko produkzio-prozesuetan zuzenean esku hartzen duten baliabide material guztiei prozesu horiekin lotutako zeharkako fluxuak batuta lortzen da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Espanian, informazio erabilgarria dugun azken bi urte hauetan, materialen kontsumoa BPGetik banandu egin da; hala eta guztiz, inportazioek goraka jarraitzen dute, eta, horren ondorioz, Materialen Behar Totala igo egin da. Guztira, sei urteetan (2000 eta 2005 bitartean) Materialen Behar Totala adierazlea % 10,59 igo da.



Iturria: Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Eremuko Ministerioa.


Baliabideen produktibitateari dagokionez, Espainiak EB-15eko herrialdeetako azken laugarren posizioa du. Haren atzetik soilik Grezia, Portugal eta Finlandia daude. Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira baliabideen produktibitate handiena duten herrialdeak. EB-15eko batez besteko produktibitatea % 22,22 da 1993-2004 denboraldian.

HELBURUA: ENERGIA KONTSUMO ETA EKOIZPEN ENERGETIKOA
 Energia-aurrezki, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzea, kontsumo-sektore guztietan.

19. konpromisoa: ENERGIA AURREZTEA
 2010erako 975.000 ptb-ko energia-aurrezki lortzea.
 EAEko informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

Energiaren aurrezki pilatuak gorako joerari eutsi dio azken urteetan, eta hori positiboki baloratzen da. 2008an energiaren aurrezki-zifra 668.504 tona petrolio baliokidera igo zen, aurreko urtean baino ia % 17 gehiago.

Energia-aurrezki (pilatutako datua)




Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

20. konpromisoa: ENERGIA-ERAGINKORTASUNA
 “Energia-eraginkortasunaren intentsitatea 2000n baino % 16 handiagoa izatea”
 EAEko Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia


EAEren intentsitate energetikoa, energia-kontsumoaren eta BPGaren arteko erlazio gisara neurtzen dena, beheraka doa urtez urte; horrek berresten du eraginkortasun energetikoa handitu egin dela eta hartutako konpromisora hurbiltzen ari garela. Intentsitate energetikoa

Intentsitate energetikoa



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Joera positibo horri eusten zaio, halaber, Espainian eta Europan azken urteotan.




Iturria: Eurostat, Eustat eta Energiaren Euskal Erakundea

21. konpromisoa: JATORRI BERRIZTAGARRIKO ETA KOGENERAZIOKO ELEKTRIZITATEA

“Energia-kontsumoaren % 29 energia berriztagarriaren eta kogenerazioaren bidez lortutakoa izatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

2006. urtean beheraldia izan ostean, jatorri berriztagarriko eta kogenerazioko elektrizitate-kontsumoak gorazko bideari ekin dio berriz ere, eta 2005. urteko mailatik goraxeago kokatu da. Hala eta guztiz ere, urruti gaude oraindik 2010eko konpromisotik; bada, jatorri berriztagarriko energia elektrikoaren kontsumoa, 2008an, kontsumo osoaren % 3,9 izan da.



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Espainiako Jasangarritasunaren Behatokiko datuen arabera, EAEn energia berriztagarriek elektrizitateari egiten dioten ekarpenaren ehunekoa beste autonomia-erkidego batzuetako datuetatik nabarmen beherago dago oraindik ere; izan ere, 2007an portzentaje hori % 25ekoa izan zen Galizian, % 21ekoa Gaztela eta Leonen, eta % 11koa Aragoian.

Espainian, oro har, energia berriztagarriek etengabe egin dute gorantz 2004tik; hala, gero eta parte-hartze handiagoa dute energia-eskaerari erantzuteko sisteman. Elektrizitate-ekoizpena, 2007an, 62.362 GWh-koa izan zen, eta energia berriztagarriek % 20ko ekarpena egin zuten elektrizitatea sortzeko prozesuan; dena den, Europako Direktibari jarraiki, portzentaje horrek % 29,4ra iritsi beharko du 2010ean.

Europako Batasunean, berriz, energia berriztagarrien bidez lortutako elektrizitate-kontsumoa % 15,6koa izan zen 2007an, eta 2010erako % 21era iristea da helburua.

Bestalde, EAEko elektrizitatearen % 12,5 kogeneraziotik ekoitzi zen 2008an, eta 2007an, berriz, % 11,7. Europako Batasuneko 27 kideei dagokienez, eskura diren 2007ko datuen arabera, elektrizitatearen % 10,9 kogenerazioaren bidez sortu zen; Espainian, berriz, beherago geratu zen portzentaje hori, % 7,1ekoa izan baitzen. Kogenerazioz energia elektriko gehien ekoizten duten Europako herrialdeak Danimarka (% 42,8) eta Letonia (% 40,9) dira.


22. konpromisoa: BIOERREGAIK

“Garraioan urtero 177.000 ptb bioerregai kontsumitzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

2008an, bioerregaien kontsumoa % 75 handitu zen 2007ko datuekin alderatuta. Dena den, nahiz eta bioerregaien kontsumoa azkeneko bi urteetan sendo hazi eta gero eta gehiago zabaldu den, nekez erdietsi ahal izango da 2010erako ezarritako konpromisoa.

Garraioaren arloan kontsumitzen den bioerregai-kantitatea



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Espanian, bioerregaiak erregai-kontsumo osoan duten parte-hartzeari buruzko 2003/30/EB Direktiba betetzeko, garraiorako gasolina eta gasolioen eskaera osoaren % 5,75 izan beharko du bioerregaien kontsumoak 2010. urterako. Bestalde, Energia Berriztagarrien 2005-2010eko Planaren arabera, garraioaren arloan Espainian 2010erako aurreikusitako gasolina eta gasolioen kontsumoa oinarritzat hartuta, garraiorako erregaien eskaera oso horretatik % 5,83koa izan behar du bioerregaien ekoizpenak; 2007an, baina, portzentaje hori % 1era baino ez zen iritsi.

Europako Batasunean ere bioerregaien erabilera gutxi zabaldu da oraindik, eta 2007an % 2,9ra baino ez zen iritsi. Nolanahi ere, zenbait herrialdetan bioerregaiak parte-hartze adierazgarriagoa dute erregai-kontsumo osoan; bada, Alemanian % 10 da portzentaje hori, eta Suedian, berriz, % 5,6.

HELBURUA: HONDAKINAK MURRIZTEA ETA TRATAMENDURIK GABEKO HONDAKINEN ISURPENA ZERO IZATEA

“Hondakinak murriztea eta hondakinen kudeaketa hobetzea, tratatu gabeko hondakinen isurpenak desagerrarazi arte”.


23. konpromisoa: INDUSTRIA-HONDAKINEN ETA BALIO ERANTSI GORDINAREN ARTEKO DESLOTURA

“Industria-hondakinen sorkuntza eta industriako balio erantsi gordina bereiztea”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ Ertaina


Azken lau urteotako garapenak erakutsi duenez, eten egin da industria-hondakin ez-arriskutsuen sorkuntzaren eta industriako balio erantsi gordinaren arteko lotura; ez da halakorik gertatu, ordea, hondakin arriskutsuen kasuan, eta BEGaren gaintetik hazi dira.

Industria-hondakinen eta balio erantsi gordinaren garapena EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Espanian, eskura dagoen historikoak erakutsi duenez, joera, funtsean, egonkorra izan da hondakin ez-arriskutsuen kasuan, eta Balio Erantsi Gordina nolakoa hondakin ez-arriskutsuen maila halakoa izan da. Hondakin arriskutsuen kasuan, aldiz, bestelako izan da eboluzioa, ez baitu joera zehatzik izan.



Iturria: Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Eremuko Ministerioa eta Estatistika Institutu Nazionala


24. konpromisoa: HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA

“Hondakin arriskutsuen baliabide materialak berreskuratzea, horien birziklatze-tasa % 65eraino igota.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

Gaur egun, oraindik ere ez dago datu bermaturik 2008ko hondakin arriskutsuen inbentarioaren gainean; horrenbestez, 2007. urteari dagokio hondakin-mota horien birziklatze-tasari buruzko informazio eguneratuena, eta informazio hori behin-betikoa da, 2008ko ingurumen-urtekarian argitaratutakoa ez bezala.

Hondakin arriskutsuen balorizazioa




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

25. konpromisoa: ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINEN BIRZIKLATZEA
“EAEn sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen % 70 berrerabiltzea eta birziklatzea”.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ Ertaina

Eraikuntza- eta eraiste-lanetan sortutako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko joerak gora egiten jarraitzen du, nahiz eta 2010erako proposatutako konpromisotik urruti egon oraindik.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Instalazio mugikorretan birziklatzen diren eraikuntzako eta eraispén-tako hondakin-tonei buruzko datua kalkulatzeko, zeharka zenbatetsitako datuak baliatu dira.

26. konpromisoa: HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN BIRZIKLATZEA
“Industria-hondakin ez-arriskutsuen birziklatze-tasa % 75ekoa izatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ Ertaina

Hondakin ez-arriskutsuen birziklatze-ehunekoa ez da aldatu 2006ko balioetatik; 2005etik 2006ra, aldiz, nabarmen egin zuen gora birziklatze-tasak. Hala, 2007an sortutako 3.476.466 tonetatik 2.299.056 tona birziklatu ziren. Azpimarratzekoa da prozesu termikoetako industriaren portaera, nabarmen hobetu baitzuen birziklatze-maila 2006an eta balio horiei eutsi baitie 2007an ere. Hobekuntza horri esker, 2010erako hitzartutako konpromisoa betetzeko bidean gara.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila


27. konpromisoa: HIRI-HONDAKINEN BIRZIKLATZEA

“Sortutako hiri-hondakin guztien % 35 birziklatzea.”


EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

Hiri-hondakin gutxiago sortu zen 2008an (% 4,2 murriztu dira 2007. urteko datuarekin alderatuta). Bestalde, birziklatutako hiri-hondakinen ehunekoak gora egin du etengabe, eta hurbil da dagoeneko 2010erako hitzartutako konpromisoan ezarritako birziklatze-maila.

Hiri-hondakinen birziklatze-ehunekoak



EAEko biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila


EAEEn 2007an biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinen kantitatea Espainiako batezbestekotik behera dago (588 kg/biztanle), baita EB-15eko batezbestekotik behera ere (584 kg/biztanle).

28. konpromisoa: HIRI-HONDAKINEN ISURPENA ZERO IZATEA

“Tratamendurik gabeko hiri-hondakinen isurpena zero izatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

Beharantz egiten jarraitzen du aurrez tratamendurik jaso gabe zabortegira botatzen diren hiri-hondakinen ehunekoak. Araba doa arlo horretan aurren; izan ere, hiri-hondakinak pilaka jasotzeko sistemaren barruan, tratamendu mekaniko-biologikoa ematen zaie hondakinoi, Gardelegi zabortegira bota aurretik. Gipuzkoan, lehortze-sistema biologikoa izango duen energia balioztatzeko instalazio bat eraikitzea aurreikusten da, eta badirudi abian izango dela 2013an. Bizkaian, azkenik, Zabalgarbi erraustegiaz gain, 2011tik eta 2012ra bitartean, hondakinei tratamendu mekaniko-biologikoa emateko lerroa ezartzea aurreikusten dute.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

1996-2007 denboraldian, biztanle bakoitzeko zabortegira botatako hiri-hondakinak % 17,4 hazi ziren Espainian. Denboraldi bereko EB-27ko batezbestekoak, aldiz, % 26 egin zuen behera. Europako Batasuneko kideen artean, sekulakoa izan da Alemaniak arlo horretan lortu duen beherakada, % 98,7koa; bai, halaber, Herbehereek, Belgikak eta Suediak izandako emaitzak ere, % 80ko beherakada gainditu baitute.

Espainian, biztanle bakoitzeko 350 kg hiri-hondakin bota zen zabortegira 2007an. Dena den, ratio hori EAEkoa baino nabarmen handiagoa da; bada, biztanleko 261 kg bota zen zabortegira urte berean EAEn. EB-27ko batezbestekoa, 2007an, 214 kg/biztanle izan zen. Alemania, Belgika, Suedia eta Danimarkak biztanleko 50 kg hiri-hondakin baino gutxiago bota zuten zabortegira.

HELBURUA: GURE DIBERTSITATE BIOLOGIKOARI EUSTEA

“Dibertsitate biologikoaren galera geraztea, lurreko eta itsasoko habitat eta ekosistemak babestuz eta haien jarduera jasangarria berreskuratuz”.

29. konpromisoa: GALZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK

“2007-2010 artean, galzorian edo egoera larrian dauden fauna- eta flora-espezieen populazioen bilakaera-indizeek hoberako joera erakustea”.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ Ertaina

EAEEn gutxi gorabehera dauden 400 ornodun-espezieetatik 42 larriki mehatxatuta daude, eta 3.000 landare baskularren espezieetatik, berriz, 44.

EAEko flora baskularren Zerrenda Gorria eratu zuten 2009an, Natura eta Baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunak (NKNB) proposatutako irizpideak eta metodologia oinarri hartuta. Hona azterketaren emaitzak:

Galdutako taxonak	12	la mehatxuan diren taxonak	50
Arrisku bizian diren taxonak	28	Mehatxuan ez diren taxonak	16
Arriskuan diren taxonak	29	Datu nahikorik gabeak	12
Taxon kalteberak	78		

Faunari dagokionez, espezie urtarren edo habitat urtarrei lotutako espezieen egoera da larriena, eta florako espezieen artean, berriz, gutxienez espezie bat dago berehala galtzeko zorian. Gainerakoetan ez da hobekuntza nabarmengarrik igarri.

“Galzorian” daudela aitortutako populazioen azkenaldiko eboluzioa

Espezia	Erreferentzia-urtea	Ebaluazio-urtea	Berriki izandako joera
Zaparda	2001	2007	🔴
Mazkar arantzaduna	2001	2007	🔴
Ibai-kabuxa	2001	2007	🟡
Hegoaldeko zuhaitz-igela	2001	2007	🟡
Ugatza	2001	2006	🟡
Bonelli arranoa	2001	2007	🟡
Desman piriniarra	2001	2007	🔴
Ur-ipurtatsa	2000-2001	2007	🔴
Igaraba	1995	2007	🟢
<i>Antennaria dioica</i>	2001	2007	🔴
<i>Diphysastrum alpinum</i>	2001	2007	🟡
<i>Genista legionensis</i>	2001	2007	🔴
<i>Matricaria maritima</i>	2001	2007	🟡
<i>Pentaglottis sempervirens</i>	2001	2007	🟡
<i>Ranunculus amplexicaulis</i>	2001	2007	🟡

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Egin diren azken azterlanetako batzuetan, zenbait espezie-populazioen joerak ageri dira:
















Zenbait ornodun-espezieren populazioen joera (2004-2006ko eguneratzea).

Espezia	Joera
Apo lasterkaria (Txingudiko populazioa) (K)	🔴
Mirotz urdina (K)	🟢
Miru gorria (K)	🔴
Ubarroi mottoduna (A)	🟢
Amiamoko zuria (A)	🟢
Zingira-mirotxa (A)	🟢
Uroilanda handia (A)	🟢
Uhandre piriniarra (IB)	🟡
Baso-igel iberiarra (IB)	🔴
Mirotz zuria (IB)	🟢
Zingira-berdantza (IB)	🔴
Miru beltza (KG)	🟢

Espezia	Joera
Usapala (KG)	

Oharra: Espezieen izenen ondoan ageri diren laburdurek Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoaren arabera (2007) espezie horiek zer egoeratan dauden adierazten dute: Kaltebera (K), Arraroa (A), Interes bereziko (IB), Katalogatu gabea (KG).

Arrain kontinentalen populazioen joera (2004-2006).

Espezia	Joera	
	Mediterraneoko isurialdea	Kantauriko isurialdea
Aingira		
Mazkar arantzagabea		
Barbo arrunta		
Korrokoaia		
Loina		
Ezkailua		
Izokina		
Amuarrain arrunta		
Joera globala		

Hegazti-espezieen taldeen joera (1998-2008)

Taldea	Joera
Nekazaritzako sistemak	
Hiriko sistemak	
Basoko sistemak	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Espainiako Jasangarritasunaren Behatokiak espezie mehatxatuen adierazlearen bidez egindako azterketaren emaitzak jasotzen ditu "Jasangarritasuna Espainian 2008" izeneko azken txostenean. Adierazle hori 2008ko martxoan eguneratutako Estatuko Biodibertsitatearen Inbentarioan oinarrituta dago, eta, faunaren kasuan, Espainiako espezie ornodun guztiak aintzat hartzen ditu.


Ugatzunei dagokienez, Gaztela eta Leongo iparraldeko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako zenbait eremutan, espezie mehatxatu eta babesgabe asko daude — 36tik 58ra bitartean—. Hegaztiei dagokienez, Gaztela eta Leonen, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Errioxan espezie mehatxatu eta babesgabe ugari dituzten eremuak daude. Narrastien kasuan, Huelva da azpimarragarri, mehatxatutako eta inolako babesik gabeko espezie franko baititu zenbait eremutan, eta gauza bera gertatzen da anfibioekin ere. Arrain kontinentalak, oro har, ondo babestuta daude, Espazio Natural Babestuen Sarearen eta Natura 2000 Sarearen bidez.

30. konpromisoa: BASO AUTOKTONOEN AZALERA

“2006ko baso autoktonoen azalera (Baso-inbentarioa) 10.000 hektarea handitzea”.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ Ertaina

Baso-inbentarioen bidez jasotako azkeneko datuen arabera, etengabe hobetzen ari da baso-azalera.



2008an, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera guztiaren % 55 —hots, 396.701 hektarea— zuhaitzia zen. Galizia, Katalunia eta Asturiasekin batera, baso-lurreko azalera handiena duten autonomia-erkidegoetako bat da EAE, eta Espainiako batezbestekotik (<% 40) gora dago.

Lurraldeka, Araban, zuhaitziek hartzen duten azaleraren % 78 baso naturala da; baso horiek, gainera, EAEn babestutako azaleraren erdia baino gehiago dira.

Bizkaian, baso-azaleraren % 75 espezie exotikoek hartua dute: 100.000 hektarea intsinis pinuek hartuta dago, eta 13.000 eukaliptoek. Berezko baso atlantikoak, beraz, urri-urriak dira; gainera, oso zatituta daude, txikiak dira eta elkarrengandik sakabanatuta daude. Baso misto atlantikoak, esate baterako, 15.000 hektarea hartzen ditu.

Gipuzkoan, baso-azaleraren % 63 zuhaitz-sailak dira, eta % 34, berriz, baso autoktonoak; baso horien kontserbazio-egoera, dena den, ez da guztietan berdina.

Baso natural mota batzuk ez dira behar beste aintzat hartzen babestutako eremuen barruan. Esate baterako, EAEko pagadien % 70 Euskadiko naturagune babestuen sareak babesten ditu. Sare horrek, baina, karraskal mediterraneo lehoren % 7, erkamezti submediterraneoaren % 7 eta haltzadien % 20 besterik ez du hartzen barnean.

31. konpromisoa: HEZEGUNEAK

“Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean barneratutako hezeguneen 50 hektarea leheneratzea.”


EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

Hezeguneak leheneratzeko jarduketa garrantzitsuak jarri dira abian azken urteotan. Hala, 2007an, 14 hektarea leheneratu ziren Lacorzanako urmaelean eta Debako kostaldeko estuarioan; 2008an, berriz, Urdaibai leheneratzeko zenbait lan gauzatu zen, eta, guztira, 20 hektarea urperatu ziren berriz ere.

Udalei diru-laguntzak emateko aginduaren bidez, 2007tik 2009ra bitartean, diru-laguntzak eman dira hezeguneak beren onera ekartzeko, eta 11,6 hektarea leheneratu dira guztira. Hala, bada, 2007an, Aguraingo Udalari eman zioten diru-laguntza, Pedroko hezegunean jarduteko (7 ha); 2008an, Elgetako Udalak jaso zuen diru-laguntza, Asentzio hezegunea leheneratzeko (1,5 ha); 2009an, azkenik, Agurainek diru-laguntza jaso zuen berriz ere, Pedroko hezegunea zabaltzeko (2,1 ha), baita Getxok ere Boluen mantentze-lanak egiteko. Gainera, 2008an, Ajangizko Udalak diru-laguntza eskatu zuen Oka ibaiaren ezkerraldea leheneratzeko (1 ha).

Hortaz, 2007tik 2009ra bitartean, leheneratutako hezeguneen azalera 59,6 hektareara iritsi zen guztira.

Leheneratutako hezeguneen azalera



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

32. konpromisoa: NEKAZARITZAKO INGURUMENAREN ARLOKO NEURRIAK

“Nekazaritzako ingurumenaren arloan biodibertsitatea babesteko neurriak dituen azalera handitzea, gutxienez, Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren % 10era iritsi arte”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: Ez dago informaziorik eskura

2007an, jada, 2010erako hartutako konpromisoa betetzea lortu zen, eta azaleraren % 12n ezarri ziren nekazaritzako ingurumenaren arloan biodibertsitatea babesteari buruzko neurriak.

Gaur egun, ezartze-aldian dago EAEko Landa Garapen Jasangarriko 2007-2013 Plana (LGJP), eta plan horrek baliabideak eskainiko ditu, bai ingurumen-balioa duten EAEko nekazaritza-sistemak zaintzeko, bai basoetan zein nekazaritza-lurretan Natura 2000 Sarea finkatzen laguntzeko. Euskadiko LGJPak aurrekontu osoaren % 25 esleitu du ingurumena eta ingurune naturala hobetzeko ekimenak gauzatzeko. Europako beste herrialde batzuetan, aldiz, askoz handiagoa da zeregin horretarako esleitutako zenbatekoa; hala, bada, Frantzian, Bavarian (Alemania), Austrian eta Suedian, esaterako, % 54, % 62, % 78 eta % 80koa izan da ehuneko hori, hurrenez hurren.

Landa Garapen Jasangarriko 2007-2013 Plana aplikatzeaz batera, Ingurumena Ustiatzeko Kontratua jarri da abian; kontratu horren barruan, biodibertsitatea babesteko nekazaritza eta ingurumenaren arloko neurriak aintzat hartzen dira. Ingurumena Ustiatzeko Kontratua 2008an jarri zen martxan, eta horrekin batera eman zen lehen laguntza-sorta. Hala, 2009rako erabat finkatu da, eta urte horretatik aurrera ekin dio informazioa jasotzeari, egokiro aztertu ahal izateko kontratua zernola finkatu den eta noraino iristen den. Era berean, 2008an, baziren oraindik 2000-2006ko LGJPari zegozkion espediente batzuk; horrexegatik, bada, trantsizio-aldi horretako datuak ez dira oraindik guztiz homogeneousak.


33. konpromisoa: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

“Nekazaritza ekologikorako erabiltzen den azalera 1.200 hektarearaino haztea”.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

2008. urtean, dagoeneko, gainditu egin da 2010erako aurreikusitako konpromisoa, eta nekazaritza ekologikora bideratutako azalera 1.350 hektareara iritsi da. Badirudi, gainera, kopuru horrek handitzen jarraituko duela, adierazleak gorazko joera hartu baitu azkeneko urteotan.

Nekazaritza ekologikorako erabiltzen den azalera



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Espanian, garapen egokia izaten ari da nekazaritza ekologikoa, hein handi batean Andaluziari esker; bada, Estatuan nekazaritza ekologikorako erabiltzen den azaleraren ia % 60 hartzen du autonomia-erkidego horrek; EAEk, aldiz, % 0,5 besterik ez. Hala eta guztiz ere, Espanian nekazaritza ekologikora bideratutako laborantza-azalera % 3,9 da; alegia, EB-15koa (% 4,3) baino txikiagoa.


34. konpromisoa: BASO-ZIURTAGIRIAK

“Ziurtatutako baso-ustiapenen azalera 50.000 hektareara iritea”.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

2008ko datu finkatuek berresten dutenez, goranzko joerari eutsi diote ziurtatutako baso-ustiapenek, eta, horri esker, gaintitu egin da 2010erako ezarritako konpromisoa, ziurtatutako azalera 53.797 hektareara iritsi baita.

PEFC ziurtagiria duen baso-azalera



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Basogintza Elkarten Konfederakundea

Eskura dauden Estatuko datuek azaltzen dutenez, ziurtatutako azalera, guztira, 1.083.181,17 hektarea da Espainian, eta ziurtatutako azalera horretatik % 5 dagokio EAeri.

35. konpromisoa: ESPEZIE INBADITZAILEAK

“Espezie inbaditzaileak murriztea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ Txikia

EAEn fauna eta flora exotikoari buruz berriki egin diren diagnostikoetan, 21 espezie inbaditzaile identifikatu dira floran eta 49 espezie faunan.

2009an, flora-espezie inbaditzaileak erazteko jarduera gehienek espezie hauek izan dituzte xede: *Baccharis halimifolia*, *Cortaderia selloana* eta *Fallopia japonica*.

Azpitarragarriak dira, orobat, zebra-muskuilua (*Dreissena Polymorpha*) kontrolpean izateko segimendu eta koordinazioko batzordeak gauzatutako lanak, baita Foru-Aldundiek kudeatuta zenbait espezie harrapatzeko egin diren kanpainak ere.



36. konpromisoa: NATURA SAREA

“Natura 2000 Sareko eremuen barruan, Eskualde Biogeografiko Atlantikoko eremuen % 100 eta Eskualde Mediterraneoko % 30 Babes Bereziko Eremu (BBE) izendatzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

Natura 2000 Sarean aintzat hartutako guneak kudeatzeko 23 planen idazketa kontratatuta dago dagoeneko, eta gauzatze-aldian da jada. Horrekin batera, EAEko eremuan Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa garatzeko dekretuaren proiektua ere izapidetze-bidean da (zehazki esan, jendaurrean erakusteko aldian dago, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariaren 2008ko urriaren 29ko Ebazpenaren bidez).

Oraindik ere, oro har egiteke daude sarea osatzen duten guneen kudeaketa-tresna zehatzak eratzeko, onartzeko eta ezartzeko lanak; hala, bada, nekazaritza garatzeko eta natura zaintzeko politiken arloko erronka handienetako bat da hori, bai Espainiako Estatuan, bai Europako Batasun guztian.



Iturria: Espainiako Jasagarritasunaren Behatokia

37. konpromisoa: PAISAIA

“Paisaia berezi eta paregabeen buruzko katalogoan dauden eremuen % 10ean kudeaketa-neurri egokiak aplikatzea”.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: Ez dago informaziorik eskura

Azkeneko azterketa-aldian ez da aurrerapauso adierazgarririk egin arlo honetan.

HELBURUA: MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA-EREDU BERRI BATERANTZ
“Herritarrak oinez ibiltzera eta bizikleta eta garraio publikoa erabiltzera bultzatzea, gizon-emakumeen mugikortasun-eskaera kudeatzeko. Merkantzien garraioa gehiago egitea itsasoz eta trenez, eta gutxiago errepidez”.

38. konpromisoa: PERTSONEN MUGIKORTASUNA


“Bidaiatzeko moduak motorrik gabeko garraiorantz bideratzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ Ertaina

Eustatek eta Estatistika Institutu Nazionalak egindako Etxebizitzen eta Ingurumenaren 2008ko Inkestatik lortu dira 2008. urteari dagozkion datuak. Informazio hori, beraz, ezin da zehatz-mehatz alderatu EAEko mugikortasunari buruz Eusko Jaurlaritzak egindako azterlanetako informazioarekin, iturriak diferenteak baitira.


Nolanahi ere, joerak aztertzekeo besterik ez bada ere, posible da gutxi gorabeherako alderaketa bat egitea, eta, alderaketa horren bidez ondorioztatuenez, azken urteko joeretan ez da, funtsean, aldaketarik izan, nahiz eta automobila erabiltzeko joera apur bat handitu den, joan-etorriak egiteko modu jasangarriagoen kaltetan.

Joan-etorrien %, erabilitako garraio bidearen arabera. EAE



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Estatistika Institutu Nazionala

Eskura dauden 2008ko datuen arabera, EAEko mugikortasun-ereduak Espainiako batezbestekoa baino hobeak dira; bada, egiten diren joan-etorrien % 58,8an garraio jasagarria erabiltzen da, eta Estatuko batezbestekoa % 54,7 da. EAEko datu horren gainetik daude, nolahi ere, Madrilgo Autonomia Erkidegoa, Aragoi, Gaztela eta Leon, Errioxa eta Extremadura. Beste autonomia-erkidego batzuetan, aldiz, gutxiago dira garraibide jasagarriak erabiliz egindako joan-etorriak: Kanarietan % 38, Galizian % 39,9 eta Murtzian % 42,6.



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

39. konpromisoa: SALGAIEN GARRAIOA

“Salgaien garraioaren banaketa-modua birbideratzea, eta, lurrez (errepidez eta trenez) egiten den garraio guztiaren % 15 trenez egitea (kilometroko tonatan neurtuta)”.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia


Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak urtero argitaratzen dituen Euskadiko Garraioaren Panoramika izeneko txostenetan, salgaien garraioa nola banatu den azaltzeko informazioa jasotzen da, urtean urteko datu totaletan oinarrituta. Hala, 2006ko Garraioaren Panoramikaren txostenean adierazten denez (datu horiek 2008ko ingurumen-urtekarian jaso ziren gerora), errepideko garraioak garraio osoaren % 81 hartu zuen; tren-garraioak, berriz, % 3; eta itsasoko eta aireko garraioek, azkenik, gainerako % 16a.

2007ko datuek, berriz, hauxe adierazten dute:

- Salgaiak errepidez garraiatzeari buruz Sustapen Ministerioak egiten duten etengabeko inkestan azaltzen denez, 2007an EAEn errepidez garraiatutako salgai-bolumena 117,683 milioi tona izan zen, alegia, totalaren % 69,6.
- Trenbide-garraioari dagokionez, RENFEk, FEVEk eta EuskoTrenek 6,11 milioi tonako jarduera-bolumena osatu zuten 2007an; alegia, guztira garraiatu ziren salgaien % 3,6 garraiatu zituzten.
- Salgaien aire bidezko garraioa 34.836 tonakoa izan zen 2007an EAEko hiru aireportuetan; kantitate hutsala, salgaien garraioaren kantitate osoa aintzat hartuta.
- Denbora-tarte horretan bertan, Bilboko eta Pasaiaiko portuek 45 milioi tona salgai mugitu zituzten, eta Bermeokoak, berriz, 317.200 tona; hiruren artean, beraz, totalaren % 26,8.

Hitzartutako konpromisoan zehaztutakoaren arabera, lurreko garraioari (errepide- eta tren-garraioei) soilik dagozkion datuak oinarri hartuta eta 2006 eta 2007ko urteei dagozkien ehunekoei so, igartzen da aztertutako azken urte horretan tren-garraioa erabiltzeko joera apur bat handitu dela, nahiz eta oraindik ere urrun egon 2010erako aurreikusitako % 15 horretatik.


Salgaien lurreko garraioa nola banatzen den EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

Garraio-moduetan, errepidea da nagusi Europako Batasuneko estatu gehienetan. Trenaren erabilerari dagokionez, berriz, aldea nabarmenagoa da herrialdetik herrialdera. EB-27ko datuen batezbestekoak erakusten duenez, lurreko garraioaren % 81 errepideari dagokio, eta gainerako % 19a, berriz, trenari.

Salgaien lurreko garraioa nola banatzen den (errepidea eta trena), 2007. urtea



Iturria: Eurostat

HELBURUA: LURRALDEAREN ERABILERA OREKATUA LORTZEA

“Lurraldean eragiten duten sektoreen plangintza bateratua eta koherentea lortzea, lurraldearen artifizializazio- eta zatiketa-arazoak konpon daitezen.”

40. Konpromisoa: HIRIGINTZA-EKINTZAK ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA

“Urtero, hirigintza-ekintzen bidez artifizialtzen den hektarea-kopurua murriztea.”


EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

EAEn, 2008an, 2007an baino 478 hektarea gehiago kalifikatu dira egoitza-erabilerako lurretarako, ekonomia-jardueretarako, ekipamenduetarako eta espazio libreetarako. Horrenbestez, artifizializazioaren erritmoa bizitu egin da aurreko urtetik.

Dena den, aurreko argitalpenetan ere aipatu izan den moduan, beharrezkoa da zehaztea artifizializazio-kalkulu horien barruan kontuan hartzen dela espazio libreetarako kalifikatutako azalera ere, eta espazio libreak, izatez, ez liratekeela artifizializaziotzat jo behar, lur horietan ez baita inolako aldaketarik egiten. Hala, bada, espazio libreetzat kalifikatutako azalera bazter utzita, artifizialdutako azalera 222 hektareara murrizten da, eta azalera hori 2007koa baino nabarmen txikiagoa da.

Hirigintza-ekintzaren eraginez artifizialdutako azalerak urtean izandako hazkundera
(espazio libreak kanpoan utzita)

hektareak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila


41. konpromisoa AZPIEGITURAK ERAIKITZEAK ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA

“Azpiegitura berriak eraikitzearen ondorioz urtero artifizialtzen den hektarea-kopurua murriztuz joatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

Azpiegituren eraginez artifizialdutako azalerari buruzko datu orokorren arabera, 9.888,41 hektarea artifizialdu ziren guztira 2008an; alegia, aurreko urtean baino 123,33 hektarea gehiago. Dena den, kontuan hartu behar da azken urtean Gipuzkoak bide-sistema orokorrak grafiatu dituela eta zortasuna ere kalifikazio horren barruan sartu duela. Horren ondorioz, 97,10 hektarea gehitu dira Gipuzkoako sistema orokorretan, bideen arloan.

Datua bera kontzeptu metodologiko batek eragindakoa denez, eta ez benetako ekintza jakin baten ondorioz sortutakoa, aurreko urteetako zifrekin alderatzeko, Gipuzkoako zortasunari dagozkion 97,10 hektarea horiek alde batera uztea erabaki da. Beraz, azpiegituren eraginez artifizialdutako azalera 26,23 hektarea handitu dela jo da, eta zenbateko hori aurreko urtekoa baino txikixeagoa da.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

HELBURUA: BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK MUGATZEA
 "Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak mugatzea, eta karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioa egitea".

42. konpromisoa: BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK
 "2010erako, Kyotoko Protokoloan araututako berotegi-efektuko gasen emisio totalak mugatzea 1990eko emisioen % 14tik gorakoak izan ez daitezen".


EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ ★ Handia

Berotegi efektuko 25,2 milioi tona gas isuri genituen 2009an; hau da, aurreko urtean baino % 10 gutxiago. Isupen murrizketa horrez gain, BPG % 3,8 txikitu zen.




BEGen isurien bilakaeraren indizea, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGari dagokionez. *Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila.*


Hortaz, 2009an Kyotoko Protokoloarentzako erreferentzia indizea % +6koa da oinarri urtearekin alderatuta. Hala ere, Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Planaren helburua % -14ra iristea da 2008-2012 aldian.



Euskal Autonomia Erkidegoko (2009), Europako Batasuneko (2008) eta Espainiako (2009) berotegi efektuko gas isurien bilakaera indizea (oinarri urtea = 100). *Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila.*



CO₂ isurien ratioa biztanleko EAEn (2009) eta EB-15eko herrialdeetan (2008). *Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila.*



CO₂/PIB-EAP¹¹ (erosahalmenaren parekotasunean) EAerako(2008) EB-15eko estatuena (2007). *Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila*

Ekonomia-jardueraren araberako CO₂-sorkuntzari buruzko datuek nahiko emaitza onak adierazten dituzte, isurpenen maila UE-15eko batezbestekotik behera baitago. Aldiz, datu horiek populazioari egokituta, UE-15eko batezbestekotik goraxeago geratzen da biztanle bakoitzeko sortzen den CO₂-maila.

¹¹ BPG EAP: barne produktu gordina erosketa ahalmenaren parekotasunean adierazita (EAP), iturria Eurostat.

HELBURUA: KLIMA-ALDAKETARI EGOKITZEA


Klima-aldaketari egokitzeko behar diren kudeaketak egitea, eta aurreikusitako inpaktuek egin diezazkiguketen kalteak minimizatzea.

43. konpromisoa: KLIMA-ALDAKETAREKIKO KALTEBERATASUNA

“Euskal Autonomia Erkidegoak klima-aldaketaren aurrean duen kalteberatasuna murriztea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ ★ Ertaina

Klima-aldaketari egokitzeko hiru jarduketa jarri dira 2009an abian. Horietako bitan, udal mailan klima-aldaketari egokitzeko gaitasuna hartzen da langai; hirugarrena, berriz, nazioarteko kooperaziora bideratuta dago, kooperazio horren barruan inpaktuak, kalteberatasuna eta sistemen egokitze-gaitasuna aztertzeke.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

44. konpromisoa: UHOLDEAK IZATEKO ARRISKUA DUTEN EREMUEN ARTIFIZIALIZAZIOA SAIHESTEA

“Ahal den neurrian, uholdeak izateko arriskua dagoen eremuen artifizializazioa saihestea, uholde horiek 100 urteko birgertatze-aldia badute eta gaur egun garatu gabe badaude.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ★ Txikia

Azken urteotan, hainbat ekimen izan dira EAEn klima-aldaketaren eraginez uholdeak gertatzeko arriskua aztertzeke. Horien artekoak dira:

“Euskadin Klima-aldaketaren inpaktuen kostuak balioztatzeko metodologia. Bilboren kasua”, Eusko Jaurlaritzak argitara emandakoa. Azterlan horretan, klima-aldaketaren kostuetan oinarritutako metodologia garatzen da, Bilboko udalerrian itsasadarrak gainezka egiteagatik uholdea gertatzea hipotesizat hartuta.

“Costes del cambio climático: riesgo de inundación en la cuenca del río Urola” izeneko txostena, Euskal Herriko Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzarako egin. Klima aldaketaren eraginez Urola ibaiaren arroan uholdea gertatuko balitz ezbehar horrek eragingo lituzkeen kostuak balioztatzen dira txosten horretan.